

"Mozioa gre aurkako estrategia bat da eta beraz, guztiz onartezina"

Ino Galparsoro
Arrasateko
alkatea > 09



G2a

Anthony Blake:
ikusleak txunditu
zituen berriz > 23

DEBAGOIENA
Errenta aitorpenak aurkezteko epea
zabalduko dute egubakoitzean > 05

SASKIBALOIA
MUK urrezko garaipena erdietsi
zuen Gasteizen, zapatuan > 18

KULTURA
Jon Lazkano mendizale eta bidaiari
gidariari elkarrizketa > 27

GIZARTEA > HITZARMENA


Arantzazu Fundazioa eratuko dute gaur

Ekitaldia Donostian egingo dute, gaur goizean > 04

IKUSKIZUNA > ESPALOIAN

Anthony Blakeren trikimailuak

Ez da lehen aldia Anthony Blake Elgetara etortzen dena. Aste bukaeran bi emanaldi egin ditu Espaloian eta aurrekoetan bezala aho bete hortz utzi ditu hara hurbildutako ikusleak. Mentalista ezagunak hainbat trikimailu eka- rri zituen Elgetara, ikusleen gozamenerako eta harridurarako. > 23



Blake, zapatuan Elgetan.

J.A.

ELKARTASUNA > SAHARA

Saharako kanpamenduetan izan dira ibarreko hainbat lagun

DEBAGOIENA Saharako errefuxiatuekin izan dira Aste Santuan Bubisher, Iesbaa eta Nubi elkarteko kideak

ELKARTASUNA Otsailean elkartasun karabanako kamioetan eramandako materiala banatu dute

UDARAKO 'Oporrak Bakean' kanpainarako ibarreko familien laguntza eskatu dute ibarreko elkarteek > 02



BABESA Argazkian, zapatuan euskara hitzarmenari babesa eman zioten elkarteetako ordezkariak, San Martin plazan.

JOSETXO ARANTZABAL

'Bergaran euskaraz eingou', hitzarmen berria sinatu zuten zapatuan

Orain dela 17 urte, 1991n sinatutako euskara hitzarmenari jarraipena emateko konpromisoa sinatu zuten Bergarako 82 elkarte, talde eta entitatek zapatu eguerdian, udal-letxean. *Bergaran euskaraz eingou* lelopean, datozen urtetarako lan ildoak zehaztu dituz-

te Udalak eta aipatutako erakundeek. Elkar-teen zuzendaritza organoetan euskara erabiltzea edota bazkide eta herritarrekiko harremanak euskaraz izatea ere. Lehen hitza beti euskaraz izatea da helburuetako bat, euskara bultzatzeko. > 09

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

OÑATI > LANAK

Araotzeko plaza berrituko dute

Elizaren, frontoiaren, eskolaren eta bolotokiaren aurreko gunea berrituko dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Oñatiko Udalak, bizilagunen aspaldiko eskaerari erantzunez. Plaza berritzeko proposamenak apirilaren 21era aurkez daitezke. > 12

PILOTA > UDABERRI TXAPELKETA

Arrasate eta Antzuolako bikoteak, txapelak

Udaberriko Pilota Txapelketa finalak jokatu ziren atzo Bergarako Udal Pilotalekuan; senior lehen mailan, Agirre eta Uribarren arrasatearrek 22 eta 19 irabazi zituzten Añorgako bikoteari. Bigarren mailan, berriz, Antzuolako Olalde elkarteko Muruamendiarrak eta Biteri eta Eskoriatzako

Gracia eta Oyon izan ziren aurrez aurre. Antzuolarrek irabazi zuten, 22-13ko emaitzarekin.

Giro ederra izan zen Bergarako Udal Pilotalekuan eta zaleek pilotariak eskainitako jokoarekin gozatu zuten. Beste partiduan, Astigarragako bikotea izan zen nagusi. > 15

FUTBOLA > PREFERENTEA

Aloñak 7-2 irabazi zuten Azkoagainen

Zulotik ateratzeko urrats garrantzitsua eman zuten atzo Aloña Mendik. Oñatiarrek 7-2 irabazi zituzten Idiazabali. Azkoagainen zaleek aspaldian ez zuten ikusten horrelako gol zaparrada. Urteko bigarren garaipena da Aloñarentzat. > 16

SAHARA > ELKARTASUN PROIEKTUAK

Elkartasun oporrak Saharako kanpamenduetan

ELKARTEAK Aste Santuko oporrak aprobetxatuz Bubisher, Nubi eta Iesbaa elkarteetako ordezkariak Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan izan dira

MATERIALA Otsailean elkartasun karabanako kamioietan eraman zuten materiala modu egokian banatu dute, besteak beste

EGOERA Sahararrak etsita bizi direla sumatu dute eta urte amaieran gerrara joateko asmoa dutela azaldu diete behin eta berriz

I. AGIRREAZALDEGI/J. ZABALA > BERGARA Saharako umeak izaten dira gurean udan. Euren bizimodu gogorra utzi eta denboraldia pasatzen dute modu erosoago eta osasuntsuago batean. Baina, nolako da ba euren bizimodua? Argelen, Tindouf-eko kanpamenduetan bizi dira errefuxiatu sahararrak, eta euren bizimodua ezagutzera, bisita bueltatzera joan dira Aste Santuan, sahararren aldeko gobernuz kanpoko erakundeetan lanean diharduten hainbat lagun; baita etxean ume sahararrak hartzen dituzten familietako kideak ere.

Bergarako Bubisher elkarteetik lau lagun joan dira; Arrasateko Nubitik bat; eta Aretxabaleto Iesbaatik beste bat Bergarako lagun batekin. Antzuolarririk ere izan da bidaian; ume saharar baten udako hemengo familiako aita eta anaia bat lagun batekin joan dira hanga bere senideak ezagutzera.

Joan dira egungo egoera nolako den ikustera; otsailean joandako elkartasun karabanen bidalitako materiala ondo banatu duten aztertzeraz; eta Oporrak Bakean kanpainarako hainbat gauza zehaztera.

JANARI ETA SENDAGAI BEHARRA Bibi Andueza bergararra ez da sahararren kanpamenduetan izan den lehen aldia eta egoera gutxi aldatu dela dio: "Egoera betiko antzerakoa da, ez dago aldaketa handirik, zoritxarrez,

iaztik hona. Janariari dagokionez, beharra larria da Nazio Batuetatik gero eta gutxiago bidaltzen diete eta sendagaiekin gauza bera gertatzen da".

Beharraren poderioz hasi dira gauzak mugitzen sahararrak. "Algeriako lurralde okupatuetan daude baina gerran egon zirenean liberatu zuten lurralde zati bat, eta hori eurek kontrolatzen dute. Lur horretan berpizteko ilusioa dute eta horretarako poliki-poliki asentamenduak egitea da euren nahia. Hasiak dira jadanik eraikitzen, baina arazok dituzte ur gutxi aurkitzen dutelako. Tifariti inguruan hasi dira lanean, baina hori aurrerapauso txiki bat besterik ez da. Lur horietara joaten dira artzaintzara; ez da lur aberatsa baina berdeagoa bai. Eraikin horiek egitea eta han bizitzea proba modukoa izango litzateke. Egindakoa euren lurraldean egiten duten sentipena dute gutxinez".

ETSIPEN GIROA

Nubi elkarteko Agurne Juldainek denboraldi luzeagoa eman du kanpamenduetan eta etsipena sumatu du errefuxiatuengan: "Jendea nazkatuta dago, itxoiteaz aspertuta. 33 urte dira desertuan bizi direla eta jendeak bere buruari galdetzen dio: Noiz arte horrela? Neke giroa da nagusi, etsipen giroa. Seme-alabei zein etorkizun emango dieten da euren kezka. Esperantza ez dela galtzen esaten da, baina urritu bai, eta hori da euren kasua".

Agurne Juldainek kontatu digu han zirela euria egin zuela eta eurek eraikitako horma bat bota zuen. "Gure erreakzioa izan zen esatea berriz eraikiko genuela, baina etsipenez esaten zigiten ez dutela dirurik adreiluak erosteko, eta gainera hasierara itzultzea bezalakoa dela. Eraikuntza lanetan dabilta baina horrek finkatzea adieraziko luke eta argi dute hori ez dela euren

'Oporrak Bakean' kanpainarako ibarreko familien laguntza behar dute elkarteek

Ume sahararrak uztailean eta abuztuan gure artera ekartzeko *Oporrak Bakean* programa abiarazi dute. Helburua da umei laguntza ematea osasun arloan. Horretarako, mediku azterketa egiteko aukera emanez eta bi hilabeteen barrera elikadura orekatua eskainiz hemengo familietan. Bestalde, aldendu nahi dituzte Tindouf-eko kanpamenduetan jasaten dituzten tenperatura altuetatik (55 gradu). Umeak gurera etortzen direnean hemengo familien etxeetan hartuko dute ostatu. Harrera familien ardura izango da umeak etxeko beste kide bat gehiago balira bezala zaintzea.

Programaren gaineko informazio gehiago behar dutenek edo umeak hartzeko prest daudenek Nubi, Bubisher edo Iesbaa elkarteetako kideengana jo dezakete hilaren amaiera baino lehen, baita udaletako gizarte zerbitzuetara ere.



BISITA Bubisherreko kideak eta Antzuolakoak uda Antzuolan pasa zuen ume batekin (erdian kamiseta laranjarekin) eta bere familiakoekin izan ziren desertuan.

"Nazio Batuetatik gero eta janari eta sendagai gutxiago bidaltzen diete"

"Errefuxiatuak hainbeste urtean desertuan bizitzeaz nazkatuta daude; itxoiteaz aspertuta"

herria. Hala eginez gero, Marokok eta beste erakundeek esango diete han geratzeko eta hori ezin dute onartu".

LANERAKO GOGORIK EZ

Aretxabaletako Iesbaa taldeko Olaia Sagredo ere bat dator esatean gauzak ez direla askorik aldatu. "32 urtez han bizitzea hain da gogorra, hain da aspergarria, pazientzia amaitzeraino iristen dira. Ez dute zereginik, ezin dute lanik egin eta etsita bizi dira. Lana egon badago, bai *Afrapadesan* edo *La media luna roja* elkarreetan kamioiak deskargatzen, baina ez dago soldatarik. Hortaz, buruari hainbeste buelta eman gabe arazoa eta etsipena nolabait saihestu nahi dutenek horretan jarduten dute, baina gazteak ez daude prest kobratu gabe lan egiteko. Askotan galdetzen digute ea guk dirudik jaso gabe egiten dugun lan. Esaten diegu ezetz, baina gure borondatez dihardugula Sahararen alde lanean eta eurek ere herri sahararra aurrera ateratzeko borroka egin behar dutela", kontatu digu Olaia Sagredok.

GERRA USAINA

Egoera gogor horren lekuko izan ostean, itzuli dira, baina askotan joaten zaie gogoia kanpamenduetara. "Euren egoera fisikoki gogorra da, baina harik eta gogorragoa psikologikoki. Benetan da gogorra jakitea beti bizi behar dutela besteen mende. Ez daukate modurik euren medioekin bizitzeko. Badituzte ortuak egiteko proiektuak, baina batez ere bizi dira nazioarteko laguntzatik. 32 urte dira presiopean eta egoerari irteerarik ikusi barik. Beti buruan gerra hasi edo ez. Egonezinak laburbiltzen du euren bizimodu gogorra", dio Bibi Anduezak.

Egoera bera ez baina errefuxiatuen pentsamoldea aldatzen dela dio Olaia Sagredok: "Gerra usaina sumatu dugu azken bidaia honetan. Aspaldi dihardute esaten gerrara joango direla, eta orainoz ez dute esanik bete, baina orain ez dakigu egoerak zein bide hartuko duen".

Ez dakite berriz noiz bueltatuko diren eta batzuek bueltatuko diren ere ez daukate seguru. Agurne Juldain sentsazio latzarekin itzuli da. "Diate urte bukieran gerrara joango direla, ez dakit hori egia izango den. Ez dakigu berriz ikusiko ditugun eta

gerrara badoaz zein izango den gure papera. Sahara herrialdearen alde lanean dihardugu eta orain zer hasi behar dugu, gerrara joan ez daitezen lanean? Sentipen gazi-gozoarekin etorri naiz. Ez dakit noiz itzuliko naizen. Espero dut noizbait bueltatzea baina mendebaldeko Saharara, ez kanpamenduetara. Izan ere, kanpamenduetara ez banoa izango da mendebaldeko Saharara joan naitekeelako eta herri sahararra libre delako. Horrela begi-

ratuta ez litzaidake axola kanpamenduetara ez itzultzea, beti ere Sahara askea bada", esan digu Agurne Juldainek.

Urtean bi bidaia antolatzen dituzte hemengo ordezkariak Saharara joateko: Aste Santuan eta abendu partean. "Norberak ikusi behar du lanaren eta norbere egoeraren arabera aukerarik baduen joateko, ni urtean behin joaten naiz. Bestalde kontuan hartu behar da zein behar dagoen", esan digu Bibi Anduezak.

Bubisherrekoek gorren eta ezinduen zentro batean hezkuntza eta materiala eman dute

Bergarako Bubisher elkarteak gorrekin eta ezinduekin proiektu batean dihardugu lanean. "Kanpamendu guztietan daude lau *wilaia* edo probintzia eta *wilaia* bakoitzak dauka bere eskola gorrei eta ezinduei laguntzeko. Guk urte batzuek badaramatzagu proiektu hori bultzatzen gobernuak kanpoko beste erakunde batzuekin. Batzuek eraikuntzaz arduratzen dira eta gure lana hezkuntzan zentratzen da. Arangsi gorren eskolatik urtero bi kooperante bidaltzen ditugu eta hango begiraleei eta gizarte laguntzaileei erakusten diete. Gorrekin hasi zen lana eta gero beste urritasunak dituztenekin ere lan egiteari ekin zioten", azaldu digu Bibi Anduezak.

Gizarte laguntzaileei eta senideei azaroan laguntzaile boluntarioek eman zieten formazioa *haima*-n umeei mugitzen laguntzeko, azala ez urratzeko gorputzerako olioak erabiltzen erakusteko... "Ezinduen artean badaude batzuk *haima*-tik irten ezin direnak, urruti daudelako edo euren egoera oso txarra delako", dio Bibi Anduezak. "Guk egin duguna da formazioa osatu materialarekin. Eraman ditugu pixoihalak; josteko makinak joskintza ikasketak amaitu dituztenendako; eskola umeendako gosaria urte guztirako: esne hautsa, galletak, ezitia...".



Nubiko Agurne Juldain gerrek eta minek eragindako biktimen txostena berritzen ibili da

Nubi elkarteko Agurne Juldainek Martir Chreief zentroan egin du lan. Zentro horretan daude gerrek eta minek eragindako biktimak. Falta zaie hanka, eskua, beste batzuek itsu geratu dira, paraplegiko, emplegiko... "Zentroa orain dela urtebete inguru ezagutu nuen eta hasieratik ikusi nuen nire tokia hura zela. Nire papera da laguntzaile lana. Eurek asko eskertzen dute jendeak eurekin berba egitea. Oraingo egonaldian elkartu arazi ditut talde terapia egiteko; izan ere, zentroan bestela euren gelan sartuta leudeke", azaldu digu Agurne Juldainek.

Zentroko jendeari lagun egiteaz gain, txosten bat gertatzeko lanean ere jardun du: "Hango jendeari buruzko txosten bat egin dugu biktima bakoitzaren argazkiarekin, zer gertatu zaien, zein behar duten, zein egoeran dauden... azalduz. Azken datu bilketa 2004an egin zuten eta guk espedienteak berritu eta gaztelerara itzuli ditugu. Horrekin nahi dugu dokumentazioa izatea zentroaren gaineko informazioa edukitzeko, besteak beste, erakundeetan laguntza eskatzeko. Orain, esaterako sukalde industrial bat ipini nahi dute eta dirulaguntza eskuratzeko aurkeztuko litzateke txosten hori errealitatearen berri emateko".



Lurralde okupatueto giza eskubideen aldeko lanean jardun du Olaia Sagredok

Afrapadesa elkarteari laguntzen ibili da Iesbaako Olaia Sagredo. Saharako presoan eta desagertuen senideen elkartea da Afrapadesa eta egiten du lan lurralde okupatueto giza eskubideen alde lan egiten dute.

"Gazteek protesta ekintzak edo manifestazioak egiten dituztenean lurralde okupatueto edo Marokoko unibertsitateetan militarren eraso jasaten dute, eta torturak izaten dira, jendea desagertzen da... Horren gaineko informazioa da bidaltzen digutena eta esaten digute zenbat jende desagertu den, agertu diren ala ez, zein espetxetan dauden, zein tortura jasan dituzten, epaiketen ostean zein zigor ipini dieten... Kalteak gehienetan gazteak dira eta euren familien aurka hartzen dituzte errepresaliak harrapaketak eginez, emakumezko senideak bortxatuz... Elkarteak, informazioa itzultzen dugu eta hedatu" esan digu Sagredok.

Euren lana batik bat administratiboa izan bada ere egun batean Arrasaten laguntza materialez bete zuten kamioia deskargatzeko lanean ere jardun zuten. "Jendeak zalantza izaten du eurek ematen dituzten materiala, janaria, arropak...hara ailegatzeko ote diren. Baina guk bertatik bertara ikusi dugu iristen direla eta baita banatu ere".



tzen da eta penagarria da gu hona bueltatu eta eurak han uztea", dio Olaia Sagredok. Berriz bueltatzeko gogoarekin itzuli da eta azaroan edo abenduan bisitan joango dela argi du.

Bien bitartean, Saharako berriak noiz jasoko zain egongo dira; udan handik datozen umei gogotsu egingo diete harrera eta sahararren irribarra gogoan euren ametsarekin bat egingo dute: Sahara herrialde libre izatearekin, alegia.

GIZARTEA > EKITALDIA DONOSTIAN GAUR

Gaur eratuko dute Arantzazu Fundazioa behin betikoz

Foru Aldundiko, Mondragon Taldeko, Oñatiko Udaleko eta Frantziskotar fraideen ordezkariak gaur bilduko dira notarioaren aurrean, goizeko hamaiketan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Arantzazu sustatu eta eraberrituko duen fundazioa gaur eratuko da behin betiko izaeraz. Hain zuzen, 11:00etan dute hitzordua Foru Aldundiko notarioaren aurrean, Oñatiko Udaleko, Mondragon Taldeko, frantziskotarren eta Aldundiko ordezkariak. Arantzazu Fundazioa eratzeke ekitaldia itxia izango da.

HITZARMEN-MARKOA

Euskal gizartearendako espiritualitate, kultur, arte eta bake erreferente izateko helburuarekin eman ziren Arantzazu Fundazioa eratzeke lehen urratsak. Horren harira, 2007ko abenduaren 19an sinatu zuten Joxe Mari Arregi, frantziskotarren probin-

tzialak; Markel Olano, diputatu nagusiak eta Lurdes Idoiaga Oñatiko alkateak. Orduan, estatuak eta arlo ekonomikoa zehaztu zituzten.

Hitzarmen-marko haren arabera, Santutegiko gune erlijiosoa (eliza nagusia, Asis Topagunea, komentua eta Misterioa) frantziskotarren ardurapean jarraituko du.

Hortaz, Fundazioaren esku geratuko dira kultura, natura eta zerbitzu arloen kudeaketa, besteak beste, Gandiaga Topagunea, denda, ostatua eta apartakalekuak.

HELBURU NAGUSIAK

Arantzazuk lau eremu ditu ardatz: espiritualitatea, kultura, natura eta jendearendako harreara zerbitzuak. Gaur eratuko den Arantzazu Fundazioaren helburuetako batzuk dira: alde batetik, Gandiaga Topaguneko bigarren eraikinean zentro bat eratzea, kultura, artea eta pentsamendua sortu eta hedatzeko. Beste alde batetik, eraikin horretan, Aratz-Aizkorri natura parkeari dago-kion parketxea egitea, besteak beste, Arantzazuko natur inguruneke ekimenak koordinatzeko.



SINADURA Jose Mari Arregi frantziskotarra, Markel Olano eta Lurdes Idoiaga hitzarmen-markoa sinatzen.

GOIENKARIA

FINANTZAZIOA

Hitzarmen-markoa sinatu zutenean konpromiso batzuk zehaztu geratu ziren. Hala, Foru Aldundiak bere gain hartuko du lehenengo lau urteetan aurrekontuak eratzeke konpromisoa. Bestalde, frantziskotarrak hasteria eraberritzeaz arduratuko dira, eta Oñatiko Udalak, Fundazioaren mantenuan parte hartuko du urtero diru-ekarpen bat egingez.

Frantziskotarrek eta erakundeek %50eko ordezkarietza izango dute gobernu-organotan.

ZERBITZU BERRIA

Baketik zentroak zinema zerbitzua jarri du

Ikus-entzunezkoen bitartez zentzu kritikoa landu, eta balore eta etikan hezteko helburuarekin zabaldu dute Baketik zentroan zinema zerbitzua. Guztira, 100 DVD ipini dituzte herritarren eskura.

Baketik zentroaren zinema zerbitzuak hiru eskaintza ditu: batetik, www.baketik.org webgunean eskuragarri daude filmak, eta erabiltzaileak Internet bidez ikus ahal izango du filmen zerrenda. Film bat gura duenak Baketiken eska dezake, eta bakarrik bidalketa gastuak ordaindu beharko ditu. Bigarren zerbitzua, bideokluba da. Zerbitzu honetan izena ematen duten pertsonak, hilerio, irailtik ekainera, 30 euroren truke hamar film jasoko dituzte etxean. Horrela, bazkide bakoitzak bere bilduma osatuko du. Hirugarren eskaintza, maiatzaren 30ean eta 31n egingo den hamar orduko ikastaroa da.

JARDUNALDIAK > HUHEZI

Heziketa fisikoa aldarrikatzeko jardunaldia

Soiz Heziketaren Aldeko Taldeak (SOHAT) elkarretaratzea eta prentsaurrekoa egin zituen Eskoriatzan beraien aldarrikapenak eskatzeko

M.B. > ESKORIATZA

Jakingarriak aldizkariak antolatuta, Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuaren laguntzarekin, soin hezkuntzaren beharraz berba egiteko jardunaldia egin zuten egubakoitzean Eskoriatzako HUHEZIn. Hain zuzen, Hezkuntzarik ez, heziketa fisikorik gabe lelopean egin zuten.

Jardunaldian eskarmentu handiko espezialistak egon ziren, besteak beste, Heziketa Fisikoak lizentziatu Fernando Sanchez Bañuelos. Hain justu, Gorputz

hezkuntza XXI. mendearen hastapenean izeneko hitzaldia eman zuten jardunaldia hasteko.

Bestalde, azken hilabeteotan hainbeste zeresan eman duen curriculum berrian soin hezkuntzak izango dituen orduetako buruz berba egin zuten.

SOHATEN ALDARRIKAPENAK

Heziketa fisikoari buruzko ekitaldiak aprobetxatuz, Soin HEziketaren Aldeko Taldeak (SOHAT) elkarretaratzea eta prentsaurrekoa egin zituen. Eskoriatzako



HUHEZIN Heziketa fisikoko curriculum berriaren gainean jardun zuten ostiralean. J.A.

kultura etxean egindako agerraldian haien aldarrikapenei buruz egin zuten berba. Besteak beste, EHIGE, Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola, Sarean eta Sortzen-Ikasbatuaz erakundeetako, eta CCOO, ELA, LAB, STEE-EILAS eta UGT sindikatuetakordezkariak egon ziren. SOHAT taldeko kide Luis Larrañagak esan zuen, oraingoz, mobilizazio-

ak bertan behera geratu direla. "Guk eskatzen duguna da, Lehen Hezkuntzan eta DBHn, ordu bateko bi eskola egotea astero. Baina, curriculum berrian 45 minutuko eskolak aurreikusten dituzte. Soin hezkuntza lantzen duten agenteen babesa lortuta, eskaera hori bideratuko digu Eusko Jaurlaritzari. Erabakia beraien esku dago".

> ELGETA

'Intxortako Atea' monumentua garbituko dute

Elgetako Udalak gogor gaitzetsi du joan den aste bukaeran ezezagun batzuek *Intxortako Atea* monumentuari egindako eraso. Juan Jose Arangueren eskulturaren egilearekin kontsulta egin ondoren, han azaldutako pintadak hareazko txorroarekin garbitzea erabaki du Udalak.

Intxortako Atea izazko apirilean inauguratu zuten Asentzian eta, besteak beste, Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria bera izan zen inaugurazio ekitaldian. Espainiako Gerran borrokatu zuten gudariei eskainitako lana da Intxortakoa.

Hain zuzen ere, datorren apirilaren 27an, orduko gertaeren 71. urteurrena gogoratzeko, lore eskeintza bat eta omenaldia egingo dituzte Intxortan. Era berean, Intxortako inguruko trintxerak ikusteko bisita gidatua egingo dute egun horretan.

OGASUNA > ERRENTA KANPAINA

Errenta aitorpena egin ahal izango da Bergaran egubakoitzetik aurrera

Bergarako Ogasun Bulegoan txanda eskatzeko telefonoa edo Internet erabili daiteke; errenta kanpainak ekainaren 25era arte iraungo du aurten

E.M. > BERGARA

Errenta aitorpena aurkezteko epea egubakoitzean, hilaren 18an, hasiko da. Debagoiendarrek Bergarako bulegoan egin ahal izango dituzte aitorpen mekanizatuak, astelehenetik zapatara, 08:00etatik 14:00etara. Errenta kanpainak ekainaren 25era arte iraungo du.

TXANDA TELEFONAZ EDO SAREAN

Bergarako Ogasun Bulegoan txanda eskatzeko telefonoa (902 100 040 zenbakira deituz) edo Internet (www.gipuzkoa.net/ogasuna) erabili daiteke. Bergarako



BERGARA Debagoiendarrek Bergarako bulegoan egin dezakete errenta aitorpen mekanizatu.

GOIENKARIA

ko bulegoko arduradunek Internet erabiltzeko deia egin dute. Joan zen urtean 8.315 errenta aitorpen mekanizatu egin zituzten Artzamendiko bulegoan.

EZINBESTEKO DOKUMENTAZIOA

Edozein modutan, herritarrek ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute: sarrerren, gastuen, murrizketen eta kenka-

rien ziurtagiria eta titularraren kontu korrontearen 20 digituak. Interneten norberak egin dezake errenta aitorpena, han azalduko urratsak jarraituz.

OÑATI

Gestio batzordea Laixanen

Euskara elkarteak batzarra egin zuen zapatuan

E.M. > BERGARA

Oñatiko Laixan euskara elkarteak batzarra egin zuen zapatuan. 27 lagun elkartu ziren Laixaneko lokalean, hiru ordu inguruz. Zuzendaritza berritza ez zuten lortu eta aurrerantzean gestio batzorde bat arduratuko da gidaritzaz. Amaia Bikuña, Kepa Elortza eta Jose Luis Fernandez Maure izango dira batzorde horretan.

Lehentasunezko gaien artean, *Etorकिनak euskaldundu* eta *Berbalagun* taldeak; *Zirikatzaila* (erabilera neurtzeko taldea) eta kale neurketa; eta hausnarketa egiteko beharra nabarmendu zituzten. Laixan elkarteak 469 bazkide ditu gaur egun. Euskararen inguruan lanean ari diren herriko gazteei lokalak eta baliabideak uzteko gertu agertu ziren bazkideak zapatuko batzarrean.

ARRASATE > AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA

Mobilizazioak deitu dituzte ibarrean

E.M. > BERGARA

Ibarreko zenbait preso ohiek eta haien eta iheslari politikoen senideek prentsaurrekoa eman zuten zapatu eguerdian Arrasaten. Era berean, Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideak izan ziren udaletxeko agerraldian. Guztira, 50 bat lagun elkartu ziren, eta apirilaren 25erako Debagoieneko herrietan deitutako mobilizazioekin bat egitea eskatu zuten. Era berean, *Euskal Herriak askatasuna behar du!* lelopean, hainbat ekitaldi deitu dituzte datozen egunotarako.


"Amnistiaren aldeko mugimenduko 27 ordezkari epaituko dituzte Madrilan, apirilaren 21etik aurrera. Argi izan dezatela, azken presoak etxean izan arte, amnistiaren aldeko mugimendua egongo dela".

Ekitaldiak egubakoitzean, hilaren 18an, hasiko dira. *30 urteko lanaren laburpena* bideo emanaldia izango da Arrasateko Arrano elkartearen, 19:30ean. Zapatuan eta domekan Oñatin, Aretxabaltan eta Bergaran egingo dituzte emanaldiak.




UDALETXEAN Zapatu eguerdian prentsaurrekoa eskaini zuten Arrasaten.

MIREN ARREGI



- Merkatuko lehen markak
- Gremioen koordinazioa
- Mota askotako estiloak
- Etxebizitzaren erreabilitazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar
PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar
project.s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA-ALTZARIAK
Laugaraita industriaia DEBAGOIA
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44
www.iparproject.com



Martxoaren 7ko atentatuak izan du eragina Arrasateko Udalaren egiturari. Hain zuzen ere, EB-Ber-

deak-Zutik koalizioak, EAEk atentatu gaitzetsi ezean, udal gobernutik aterako zirela esan zuten;

halaxe gertatu zen, eta ondoren etorri dira Alderdi Sozialistak zentsura mozioa aurkezteko saia-

kerak, eta orain EAJk eta PSE-EEK, EAEk agintzen duen udalaren aurkeztuko duten mozioa.

Ino Galparsoro > Arrasateko alkatea

"Mozioa gure aurkako estrategia bat da, eta beraz, guztiz onartezina da"

G. ARANA/M. ARREGI > ARRASATE

Ino Galparsororekin, Arrasateko alkatearekin izan gara azken hilabeteetan Arrasaten eta Euskal Herri mailan gertatutakoez berbetan. Isaias Carrascoren aurkako atentatuak eragin zuzena izan du Arrasateko udalean. Horretaz guztiaz jardun gara.

EAJk eta PSE-EEK adostu dute EAEk agintzen duen udalaren aurkeztuko duten mozioa. Nola baloratzen duzu edukia eta nola bi alderdiek adostu izana?

Esan behar dut, Arrasaten aurkeztuko duten mozioa, gaztelera hutsean gainera, komunikabideetan lehenago zegoela Arrasateko udalaren baino. Edukiari dagokionean, uste dut argi daudela bi alderdien interes alderdikoiak, eta beharbada hurrengo hauteskundeetarako interesen arabera planteatu dute mozioa. Interes horien barruan kokatuko nuke ezker independentistaren ilegalizazioaren estrategia. Edukia hor finkatuko nuke, eta EAJ eta alderdi sozialistaren artean lotu izana, beharbada hurrengo hauteskundeetarako estrategia, bi partiduen artean adostu nahi dutelako.

Mozio hori bozkatzeko ez ohiko osoko bilkura noiz izango den erabaki duzu?

Ez dut erabaki baina legeak 15 lan eguneko epea ematen du eta epe horren barruan egingo da.

Zein jarrera izango du Eusko Abertzale Ekintzak mozio horren aurrean?

Lehen esan badut gure aurkako estrategia bat moduan kokatzen dugula, guk ezin dugu onartu, guztiz onartezina da.

Gainerako alderdien aldetik zer espero duzue?

Ni egon naiz beste alderdiekin. Euren posizioa ez daukat eta hori ezin dut azaldu baina garbi ikusi dena da erabakia Arrasaten kokatu beharrean beste toki batzuetan kokatu dela. Uste dut eurak gertatuko denaren zain daudela, beste toki batzuetan erabakitzen denaren arabera gero herrian ere hori aztertzeke.

PSErena eta EAJrena jakinokoa da. PPK zer egingo duen ere pentsatzekoa da. Zer uste duzu egingo duela EAJk esaterako?

Uste dut herrian kokatzen badira eta baita ere Euskal Herriak behar duen konponbiderako bidean, ez dutela baiezkorik emango. Pentsatzen dut presioa izango



Ino Galparsoro, Arrasateko alkatea, atzo bertan bere bulegoan ateratako argazkian.

JOSETXO ARANTZABAL

dutela baiezkoa emateko baina beharbada ez dute horren erreza izango.

Eta Aralarrek eta EB-Berdeak-Zutik koalizioak?

Orain arte ikusi dugun jarrearekin, ez dut uste Aralarrek baiezkoa emango duenik. Eta EB-Berdeak-Zutik koalizioak, exekutibaren aldetik, irakurri dut herri mailan dagoela erabakia, eta herrian orain arte hartutako erabakia ez da aldekoa izan. Egia da, bestalde, nahiz eta nik esan zer pentsatzen dudana, gauzak aldatu daitezkeela.

ETAren azken komunikatua eta atentatuak gaitzesten ez dituzten agintarien kontrako zentsura mozioak aurkezteko izango da hurrengo urratsa. Uste duzu aurrera egin dezakeela zu alkatetzatik kentzeko zentsura mozio batek?

Ez dakit. Hogeita bat zinegotzitik EAEk Arrasateko Udalean zazpi zinegotzi ditu, eta beraz,

ALKATETZA

"Abertzaletasunaren eta euskalduntasunaren aurka posizionatu den pertsona bat alkate izatea herriak ez luke ulertuko eta onartuko"

TIRA-BIRAK

"Antzerki mediatiko honetan, alkatea eta nire pertsona hartu dute zentralitate moduan"

PSE ETA EAJ-REN MOZIOA

"Mozioan, PSE eta EAJ alderdien interes alderdikoiak argiak dira"

matematikoki posible da. Hori bai, arrasatearrek emandako hitza errespetatu behar bada, ez dut uste horren alde egingo dutenik. Orain arte egon den saiakera behintzat ez da aurrera eroan, baina nork daki.

Zentsura mozioak aurrera egingo balu, kontutan hartu behar litzateke zuen atzetik alderdi sozialista izan zela Arrasaten boto gehien eskuratu zituena, eta Paco Garcia zela alkate gaia. Bera izango litzateke hurrengo alkatea zu kargutik kenduz gero?

Ez dakit zer gertatuko den, baina uste dut Arrasateko herria herri abertzalea eta euskalduna dela, eta bai abertzaletasunaren eta baita euskalduntasunaren aurka posizionatu den pertsona bat alkate izatea, herriak ez du ulertuko eta ezta onartuko ere.

Espero zenuen Arrasaten gertatutakoak horrelako eragina izan zezakeenik? Badirudi Eus-

kal Herriko beste herri batzuetako udalen egiturari ere eragina izan dezakeela...

Oihartzun hori bakarrik ulertu daiteke kontutan izanda lehenengo momentuan interes elektoralen atzetik ibili zirela bai PSOE eta PP eta euren indar mediatiko guztia. Horrek oihartzun berezia eman zion; gero, hauteskundeon ondoren sartu da EAJ eta bere interes elektoralak. Interes horien arabera oihartzuna izaten ari da.

Nola bizi izan duzu Arrasateko alkate zaren aldetik azken hilabetea?

Kezkaz eta atsekabez ere bai, Isaias Carrascoren izan zelako gatazkaren adierazpen gordinetako bat. Ondoren gertatu den guztiak, ez du zer ikusirik gatazkaren konponbiderako behar denarekin. Antzerki mediatiko honetan, alkatea eta nire pertsona hartu dute zentralitate moduan; beraz, bizi izan dut modu nahiko gogorrean.

oharrak eta deialdiak

OÑATI

> Elkar Heziko guraso elkartearen ekintzak

Baketik erakundearekin elkarlanean, maiatzeko zapatu goizetan, *Gatazkak etikoki lantzen* delako ikastaroa emango dute, eta izenematea zabalik dago. Bestetik, honako hitzaldiak izango dira: *Nola egiten diegu aurre familian nerabeak diren gure seme-alabek sortarazten dituzten aldaketei?* delakoa bihar, martitzena, Santa Marinako mediatekan, 18:30ean; eta *Erabakiak hartzen irakasten*, etzi, eguaztena, Santa Marinako Egelan, 18:30ean.

DEBAGOIENA

> Saharako umeak hartzeko dei egin dute

Oporrak bakean programaren barruan, uztailan eta abuztuan Saharako umeak hartzeko gertu dauden familiak behar ditu Nubi elkarteak Arrasaten, Eskoriatzan eta Oñatin. Argibideetarako, deitu honako zenbakietara: 685 72 48 16, 685 72 48 17 edo 685 72 48 18.

OÑATI

> 1982an jaiotako guztiei dei egiten diete

1982an jaiotako talde bat kinto ospakizuna antolatzen dabil, eta urte horretan jaiotako denei dei egiten diete euren izen-abizenak eta helbidea bidaltzeko *kin-ttuak82@gmail.com* helbidera, Datu Babes

Legea dela-eta, ezin dituztelako datu horiek Udaletik lortu.

ARRASATE

> Txatxilipurdiren udalekuetan izenematea

Gaur, astelehena, zabaldu du Txatxilipurdik udaleku itxietarako izenematea epea 10-16 urte artekoendako. Argibideak, 943 79 54 46 telefonoan.

ARRASATE

> Errioxara irteera egin-go dute Abaroakoek

Errioxara irteera antolatu dute Abaroa elkarteak hilaren 16rako. Upeletgi bat bisitatuko dute, besteak beste. Txartelak gaur, astelehena, banatuko dituzte, 11:00etan.

BERGARA

> Txuliaketa irteera egin-go dute Nafarroara

Txuliaketa (kapea) irteera antolatu dute Bergarako Zezenzaleak taldekoek Nafarroara,

hilaren 20rako. Menda-biara eta Gorozinera joango dira. Izenematea zabalik dago bihar, martitzena, arte Ganbaran eta Avenidan.

OÑATI

> Ehizaren legedi berriaren gaineko batzarra

Oñatiko ehiztari guztiak batzarrera deitu dituzte, ehizaren gaineko legedi berria eztabaidatzeko. Pago Uson batuko dira egubakotzean, 19:00etan.

ESKORIATZA

> Muskulu sistemaren inguruko hitzaldia

Gure gorputzaren magia: muskulu sistema delako hitzaldia egingo du Mari Jose Pagaldaik etzi, eguaztena, kultura etxean, 18:30ean.

DEBAGOIENA

> Euskadiko Gazteak Lan-kidetzan programa

Jaurlaritzak egin du Euskadiko Gazteak Lan-kidetzan programako

deialdia. Izen emateko epea gaur, astelehena, zabaldu dute, eta honako doako telefonoa jarri dute: 900 33 88 22.

ARETXABAETA

> Otoitzaldia egingo dute martitzenean

Leintz Bailarako Pastoral Barrutiak deituta, otoitzaldia egingo dute bihar, martitzena, Agustindarren monasterioan, 19:00etan. Pastoral barrutiko eliztar guztiak daude gonbidatuta.

BERGARA

> Orfeoiko bazkideen batzarra martitzenean

Orfeoiak urteko ohiko batzarrera deitzen ditu bazkide guztiak. Bihar, Erregetxo plaza-ko aretoan, 20:30ean.

BERGARA

> Dislexiaren gaineko hitzaldia egongo da

Dislexia ezagutu, eskola porrota eragiten duten irakurketa-idazketa arazoak hitzaldia egingo du Eduardo Herrera adituak etzi, kultura etxean, 18:30ean.

BERGARA

> 1965ean jaiotakoek afarria egingo dute

1965ean jaiotako bergararrek anai arteko afarria egingo dute apirilaren 26an Txarran-txa jatetxean, 22:00etan. Izenematea zabalik dago Ariznoa, Etxagi eta Pol-Pol tabernetan, edo 639 56 29 25 telefono zenbakian.

etxeko leihotik



Oihane Agirre > GOITBko programazio zuzendaria

Aretxabaleta bizirik dagoen seinale!

Etxeko leihotik ezin zabaldu gabiltza Aretxabaleta aldean, obrak direla eta. Herria bizirik dagoen seinale! Otalora kalea amaitu berri dute eta merezi izan du itzarotea. Herri sarrerak eskatzen zuen horrelako eraberritzea. Gauzez Loiuako aireportua dirudi kaleak! Plaza ere garrasika ari zen berrikuntza eske. Herriko plazari erantsitako harrizko pergolari agur esan diogu. Ez dut atxabaltarrik ezagutu eraikuntza hau gustatu zaionik. Erabilpen murrizteko eraikin arriskutsua zela uste dut. Eta pergolarekin batera desagertu dira platanondoak ere. Badirudi beste zuhaitz batzuk landatzeko asmoa dagoela; azkenaldian, zementuak leku askotxo irabazi die berdeguneei gure ibarrean.

“Azkenaldian, zementuak leku askotxo irabazi die berdeguneei gure ibarrean”

Amaitzean dago kultur etxea ere. Lanik samurrena egin dela uste dut, orain dinamizatzea tokatzen zaigu atxabaltarroi. Herritar talde batek aurkeztu du bere proiektua eraikina kudeatzeko; *Gogoa da guztia* lelopean datoz. Talde honek argi utzi nahi izan duen bezala, "atxabaltarrok ez gara izan behar kontsumitzaile bakarrik, baita sortzaile ere". Erantzuten jakingo dugula uste dut!

> Arrasateko Biteri plazaren itxura eta erabilera zela hobetu aztertzen ari dira Arrasaten. GOITBk egindako inkestan, herritarrek jarleku, berdegune eta zabu gehiago eskatu zituzten.

> Aspaldi ez nintzela Eskoriatzara hurbiltzen, eta sorpresa handia hartu dut bertan egin dituzten lanekin. Plaza ingurua txukun utzi dute eta egunero herritar ugari elkartzen omen da bertan.

debagoiendarrak kanpoan

Cynthia Fresno > Antzuola

"Aldaketa handia izan arren azkar egokitu naiz Bartzelonako erritmora"

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Ingeniaritza informatikoa ikasi eta gero, Cynthia Fresno gazte antzuolarra aholkulari lanetan ari da IBM enpresa informatikoan. Egun, Bartzelonan bizi da eta han daraman bizimodua gustuko duen arren, bere jaioterriko zenbait gauza faltan botatzen ditu.

Noiz utzi zenuen Antzuola Bartzelonara joateko?

Bartzelonara joan aurretik ikastaro bat egin nuen Madrilen, 2007ko abendura arte. Ikastaro haren bitartez lortu nuen egun dudan lanpostua; IBM enpresak Bartzelonan duen egoitzan aholkulari postua, hain zuzen ere.

Lanpostu hau aurten eskuratu dut, urtarrilean. Beraz, lau hilabete eskas daramatzat Bartzelonan bizitzen.

2.000 biztanle eskas dituen herritxotik bi milioi biztanle baino gehiago dituen hirira. Zein bizimodu duzu nahiago?

Ba, egia esan, oso gustura bizi naiz Bartzelonan, suposatzen duen aldaketara nahiko ongi egokitu naiz. Geldi egotea zer den ez dakidan pertsona naizenez, azkar moldatu naiz hiriarren erritmo bizira.

Hala ere, ezin dut ukatu noiz edo noiz faltan botatzen ditudala Antzuolako zenbait gauza. Bertan nagusi den lasaitasuna, esaterako.

Antzuolara etortzen al zara inoiz?

Bartzelonan daramatzadan lau hilabete hauetan birritan izan naiz. Hala ere, gutxienez hilabetean behin joateko asmoa daukat.



GOIENKARIA

Antzuolatik joan berria

Cynthia Fresnok lau hilabete eskas daramatza Bartzelonan eta aldaketara azkar egokitu dela diosku.

Ba al duzu harremanik zure herriko lagunekin?

Bai. Logikoa den moduan, harremana hoztu egin da baina oraindik elkar komunikatzen gara. Telefonoz hitzegiten dut eurekin, baina batez ere posta elektronikoz komunikatzen gara.

Zer botatzen duzu faltan Antzuolatik?

Gezurra badirudi ere, Antzuolako ura. Hemengo uraren kalitate oso txarra da. Bestalde, Antzuolako nire etxea eta lasaitasuna botatzen ditut faltan.

Zein ezberdintasun daude Bartzelonako eta Antzuolako jendearen artean?

Hemengo jendearen umorea desberdina da, ez dakit, ironikoa edo... Bestetik, lehen kontak-

tuan euskaldunak baino hotzagoak dira. Hori bai, behin ezagututa, oso jatorrak dira, euretako bat bazina bezala tratatzen zaituzte.

Zer eramango zenuke Antzuolatik Bartzelonara?

Pentsatzen hasiz gero badira ekarriko nituzkeen gauzak. Antzuolako okindegi bateko galletak, pintxoak eta nire amak egiten duen janaria, adibidez.

Bestalde, lagunek adarra jotzen didate ea kaletik aizkoraz joaten garen galdetuz. Aizkora bat eta egur zati bat ekarriko nituzke, aizkolaritza ezagutu dezaten.

Pentsatu al duzu inoiz etorkizunean Antzuolara bueltatzea?

Ba, egia esan, ez dakit. Ez dut nire etorkizunari buruz ezer ez pentsatu. Ideiarik ez.

kale inkesta

Zer iruditzen Udalak Arrasateko Biteri plaza eraberritzeko duen asmoa ?



Joxe Mari Iturbe
Langilea
Arrasate

Ez dago eskubiderik due-la gutxi egin den obra bat eraberritzeko diru publikoa erabiltzea. Dagoen moduan utziko nuke. Diru publikoarekin inbertsio txarrak egiten dira; beharrezko gauzetarako ez dago dirurik.



Kristina Arregi
Etxeko andrea
Arrasate

Ongi iruditzen zait. Lehenengo plazan dagoen tramankulu hori bota beharko litzateke. Barrak erori egiten dira eta arriskutsua da. Proiektu batzuk diseinatu eta herriak erabaki beharko luke zer egin.



Mari Nati Martinez
Langilea
Arrasate

Dagoen moduan oso gaizki dago. Horko "gasolinerak" itxurako horrek ez du ezertarako balio. Gainera bizitza eman behar zaio guneari, orain hilik dago. Zuhaitzak eta eserita egoteko bankuak egin beharko litzukete.



Marina Quevedo
Langilea
Arrasate

Guztia bota eta berria egingo nuke, izan ere, orain penagarri dago. Lorategi gehiago, umeendako jolastoki on bat eta berdeguneak ere egin beharko litzukete. Baserriarren feriarako egokitzea ere ondo legoke.

zorroztailea



Markos Balentziaga

Eta orain, Silvio

"Romano Prodiaren gobernuaren porrotaren ostean, aurreikusitakoa baino hiru urte lehenago 50 milioi italiar inguruk bozketa eguna izango dute domekan eta astelehenean. 32 zerrenden artean aukeratu beharko dute, horietako bat Silvio Berlusconi lehen ministro ohiarena. Telebista-handikia, Italiako hirugarren gizon aberatsena da"



Gara > 2008-04-12

Gaur -domeka goizian dihardut- hauteskundiak dittue Italian eta Silvio Berlusconi izeneko pertsonajia dabe politikako saltsan -saltsa hori sendo samarra da han- eskumako hautagai nagusi eta perrejill.

Urtebetera doa Nicolas Sarkozy, Frantziako Eguzki-presidentia, Europako politikia gatzozpintzen doskun denboratxua. Nico berez ez da mutil haundixa baña bai gauzak azian barrenengo ostrua ez dala erakutsixaz egin biharra daukana. Gaurko hauteskundiak irabazten badittu, Silvio izango dau Nicok lagun Europako politikariaren antzokixan. Billeretan-eta ia zein dan pabo realago!

Politiko, negoziante, enpresario, komediante, saltsero, telebisiño-jabe, berba-jarixo, txiste-kontalari, gaztemonaren zale lotsabako... saihets askoko mutilla da Silvio. Orain hurrengo agintaldixan lege sorta bat indarrian ipini zeban enpresario moduan egindako txarrikerietatik onik irteteko tribunaletan... eta asmau egin zeban! Beretako lain eta gehixago be badaki mutillak, bai horixe.

Frantziako Eguzki-presidentia ez da makala teatro-lanetan -Showkozy deitzen dotsa Anjel Lertxundik- baña Berlusconi makalagua ez dana edarki erakutsitta dauka oraiñ baño lehen.

Italiako aberaskilluen zerrendan Silvio oso goixan jarten dau prentsa hortan-jakiñak. Pentsatzekua da bankua be gotor samarra biharko dabela halako dirutzak gordetzeko. Baña, eta, lotsia? Nun gordetzen dau Berlusconi lotsia? Ze, aldiñ ez dau sekula eruaten.

Kanpotik begiratuta ikusten ez dotsagun zeozer estimatzen dotsa italiar askok. Segurutzat jo leike txiste- eta kariaturagilliei lana emongo dotsena. Eta Sarkozy ez da bakarrik izango Europako politikariaren antzokixan.

"Politiko, negoziante, saltsero, txiste-kontalari... saihets askoko mutilla da Silvio"

"Sarkozy ez da bakarrik izango Europako politikariaren antzokixan"

irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE

> Zergatik ez zinema emanaldiak astero?

Arrasateko Amaia antzokian ez dute astero zinema emanaldiak egiten. Oraingo aste bukaeran, esaterako, ez da egon film emanaldirik. Hain areto aproposa izanda, zinema emanaldiak astero antolatzeke eskaera egin nahi du irakurle batek.

ARRASATE

> Saihesbidea, egoera txarrean

Arrasateko txirrinduzale batek e-maila bidali digu, orokorrean Debagoieneko errepideen eta zehazki Arrasateko saihesbidearen egoera salatzeke. Arrasateko saihesbidetik Fagor Elektronikorako sarrera negargarri dagoela dela dio. Lehenbailehen errepidea konpontzea eskatu nahi du, gidarientzat eta bereziki txirrinduzaleentzat arriskua nabaria delako.

BERGARA

> Utzikeria Agorrosin Ekintza Gunean

Bergarako irakurle batek deitu digu Agorrosin Ekintza Gunearen gainera kexa bat plazaratzeko. Agorrosingo bazkidea dela diosku eta gimnasioko hainbat makinarekin arduradunek azaldutako utzikeria salatu nahi du. Haren hitzetan, "hilabete baino gehiago pasatu da korrika egiteko makina izorratu zela eta oraindik ez dute konpondu. Noizko konponduko dute ba? Jende asko dabil gimnasioan eta makinak ez daude soberan". Bestalde, makinak behar bezala zaintzeko eskatu nahi die erabiltzaileei.

ustek uste

Jokin Bereziartua

Ondo pasa, baina ez pasa, Arrasaterekin?

Aurtengo Txotx! garaia hasi eta kontzientziatze kanpaina baten berri izan genuen. Ondo pasa Hernanin, baina ez pasa Hernanirekin kanpainak Hernani eta hernaniarrak errespetatzea du xede.

Honen guztiaren kausa sagardoa ei da. Efektuak, berriz, txiza eta oka edonon egitea, ekintza bandalikoak eta harreman sexualak edozein plazatan izatea omen dira. Hau da hau panorama! Sagardoa ere *amerikanizatu* al zaigu ala?

Gurean sagardoak ez du horrelako arrakastarik. Baina Arrasaten, esaterako, tabernariak bultzatuta, I. Sagardo Eguna ospatu zen, iaz. Hernaniko tabernekin izaten dituzten irabaziaz izanda ere, merezi al du II. Sagardo Eguna egitea? Birritan pentsa dezatela...

Goienkaria

Argiraraztailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Edu Mendibil Erredakzioa Jokin Bereziartua, Arantza Ezkibel, Miren Arregi Oinarritzko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larrailaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otarola Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



ASTELEHENEN GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRTIZIA orrialdean, edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**
AEDren literatur
lehiaketako sari
banaketa, hilaren
23an > 10



> **OÑATI**
Araotzeko plaza
berrituko dute
Foru Aldundiak eta
Udalak > 12



> **ESKORIATZA**
Aurreko
agintaldiko
irregulartasunak
salatu dituzte > 13



> **ELGETA**
Magia Mostra,
maiatzeko
hirugarren aste
bukaeran > 14

BERGARA > EUSKARA HITZARMENA

Euskararekiko konpromisoa sinatu dute Bergaran herriko 82 elkartek

LAU URTE Datozen lau urtetarako lan ildoak zehaztu dituzte Udalak eta erakundeek

ERANTZUN ZABALA

'Bergaran euskaraz eingou' leloarekin 82 elkartek egin dute bat

ALKATEA "Euskara ezagutzetik, euskaraz bizi izatera igaro behar dugu", esan zuen Barruso alkateak

EDU MENDIBIL > BERGARA

Hamazpi urte beranduago, 1991n sinatutako euskara hitzarmenari jarraipena emateko konpromisoa sinatu zuten Bergarako 82 elkarte, talde eta entitatek zapatu eguerdian, udaletxean. *Bergaran euskaraz eingou* lelopean, datozen urtetarako lan ildoak zehaztu dituzte Udalak eta aipatutako erakundeek. Zapatuko ekitaldian Agurte Barruso Bergarako alkateak zera adierazi zuen: "Nazio gisa bereizten gaituen ezaugarri nagusietako bat hizkuntza, euskara da, herri moduan daukagun entitatearen oinarrietako bat. Euskararen alde ibilbide luzea dauka Bergarak eta orain, euskara ezagutzetik, euskaraz bizi izatera igaro behar dugu. Hori da helburua. Bestalde, askotan euskara zama batekin lotzeko ohitura daukagu: lanarekin, azterketekin eta abar. Bada ordua gozatzeko euskara erabiliz".

BABES SENDOA

Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikariak eta alkateak berak azpimarratutako moduan, euskara bultzatzeko konpromisoa hartu duten entitateek Udala bidelagun izango dute hitzarmenaren garapenean. "Inflexio puntu honetako eragile eta protagonista nagu-



HITZARMENA Bergarako 82 elkarte, talde eta entitatek bat egin zuten euskararekin zapatuan, udaletxean.

JOSETXO ARANTZABAL

siak zuek zarete", esan zien alkateak udaletxeko osoko bilkura aretoan batutakoei.

Eli Payros Udaleko euskara teknikariak 1991tik hona egindako ibilbidearen gainbegiratu egin

zuen eta baikor azaldu zen etorkizunera begira: "Ea ba hitzarmen honekin beste bultzadaxo bat ematen diogun euskarari".

Hitzarmena sinatu duten elkarteetako bi ordezkariak ere hitza har-

tu zuten, Mireia Larrañagak Orkestra Sinfonikoaren izenean eta Gorka Martinek Gurrupildun Oholak Skate Elkartearen ordezkari gisa. Biek ere esfortzua eta lana eskatu zieten gainerako taldeei, euskararen erabi-

lera arlo guztietara zabaltzeko. Azkenik, Maripí Laskurain euskara teknikariak zera esan zuen: "Taldea bakoitzarekin aztertu dugu zein aurrera pausu eman daitekeen".

'Bergaran euskaraz eingou', 1991. urtean sinatutako besarkadaren jarraipena

Euskararen aldeko lehen hitzarmena 1991n sinatu zuten Bergaran. Orduan 49 entitatek bat egin zuten euskararekin, *Hau ez da Bergarako besarkada* lelopean. 1998. urtera arte elkarlanean jardun zuten herriko elkarteek eta Udalak. Ondoren, etenaldi bat etorri zen, eta zapatuan sinatutako hitzarmenak hasierako hari nolabaiteko jarraipena eman nahi dio. 2006an ekin zioten Udaletik egoeraren diagnosis egitera eta ordutik hainbat lagunek jardun dute animatzaile eta bultzatzaile lanetan. Lau urterako hitzarmena sinatu dute Udalak eta herriko 82 entitatek. Besteak beste, elkarteentzuzendaritza organoetan eta barne administrazioan euskara erabilteza zehazten da bertan, baita bazkide eta herritarrekiko harremanak euskaraz izatea ere: "Lehen hitza beti euskaraz izango da". Udalak teknikari bat jarriko du hitzarmenaren jarraipena eta dinamizazioa egiteko. Argibideak: www.bergara.net/Udala/Antolaketa/euskara/ebpn/komunikazioa/hitzarmena



BKEko Josetxo Muniategi Maripí Laskurainen ondoan sinatzen, zapatuan.

J.A.

LITERATURA > XXI. ARRASATE LITERATUR LEHIAKETA

Literatur lan onenen egileak ezagutzera eman ditu AEDk

Sariak apirilaren 23an banatuko dituzte, arratsaldeko 18:30ean, Udaleko areto nagusian

Parte hartzeak behera egin duen arren, aurkeztu diren lanen kalitateak ona izaten jarraitzen du

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Hamarkada bi beteak ditu dagoeneko AED elkarteak antolatzen duen literatura lehiaketak, eta pasa den egunean aurtengo ekitaldiko irabazleen zerrenda jakinarazi zuten.

Lehiaketaren lehen eta bigarren saria eskuratu duten irabazleak atalka eta adinka sailkatu dituzte. 1991n edo aurretik jaiotakoak, 1992an, 1993an eta 1994an jaiotakoak, poesia ipuina eta bertso papera atalean sailkatuta, hain zuzen.

Beraz, literaturaren munduan hasiberriak diren gazteak izan dira protagonistak, urtero moduan.

PARTE HARTZEAK BEHERA

Arrasate Literatur Lehiaketako lanen iturri nagusia herriko eskola eta ikastolak dira. Honen harira, Jon Azkoaga kultur teknikariak adierazi du lehiaketako parte hartzea ez dela oso altua izan.



SARITUAK Pasa den urteko irabazleetako bat saria jasotzen.

GOIENKARIA

Azkoagaren hitzetan, ikastola eta ikastetxeetako ekoizpen literarioak behera egin du aurturten, eta horrek parte hartzearen beherakada eragin du.

Parte hartzearen beherakada azaltzeko beste arrazoi bat ere aipatu zuen Azkoagak; literatur lehiaketak bailara osora hedatu izana, alegia. Lehiaketa Arrasaten bakarrik ospatzen zen hasie-

ran, eta egun, ordea, ibarreko beste herrietan ere antolatzen dira. Horrek, AEDko kidearen iritziz, Arrasateko lehiaketan lan gutxiago jaso izana eragin du.

LANEN KALITATE ONA

Dena ez da negatiboa, ordea. AEDko kidearen aburuz, aurtengo literatur lanen kalitatea ona izan da. Beraz, Arizmendi ikastolako

XXI. Literatur Lehiaketaren irabazleak

POESIA

1992an jaiotak

> 1. saria: Garazi Barberan Garai
> 2. saria: Elene Berezibar eta Maddi Iregi

1994an jaiotak

> 1. saria: Elene Gallastegi Uribe
> 2. saria: Alaitz Martinez

IPUINA

1991n edo aurretik jaiotak

> 1. saria: Maddi Bengoetxea
> 2. saria: Amaia Sanchez Martin

1992an jaiotak

> 1. saria: Maialen Arratibel Garcia
> 2. saria: Idoia Amallabieta Theodonou

1994an jaiotak

> 1. saria: Alaitz Martinez, Arrate Isasi-Itsasmendi eta Haritz Agiriano
> 2. saria: Jokin Mendizabal Airre

BERTSO PAPERAK

1992an jaiotak

> 1. Saria: Xabi Igoa Eriz
> 2. Saria: Ane Aspe Etxabe

1993an jaiotak

> 1.saria: Maddi Labayen Iraeta

1994an jaiotak

> 1. saria: Paula Iregi eta Amaia Letona
> 2.saria: Ane Zuazubizkar eta Irune Loza

eta Mesedeetako Andre Mari ikastetxeetako irakasleez eta AEDko lanekideez osatutako epaimahaiak ez du lan erraza izan idazki garaiak aukeratzeko.

Azkenik, Azkoagak iragarri duenez, sariak aldatzekotan dabil-tza txapelketaren antolatzaileak. Hala, 2009ko literatur lehiaketen irabazleek dirua jaso beharrean, liburu sortak jasoko dituzte.

EMAKUME TXOKOA > JABETZA ESKOLAREN BARRUAN, AMATASUNA BERBAGAI

Amatasunaren inguruan dauden mitoak aztertuko dituzte Emakume Txokoan

Bi egunetako lantegia egingo dute, apirilaren 25 eta 26an (egubakoitz eta zapatu), Norma Vazquez psikologoaren gidaritzapean

UBANE MADERA > ARRASATE

"Amatasunak emakumeon bizitzan sozialki eta kulturalki duen indarra eta garrantzia ikusita", Emakume Txokoak gai hori oinarri izango duen lantegia antolatu du apirilaren 25 eta 26rako: *Amatasunaren Korapiloak*.

Norma Vazquez psikologo mexikarra izango da irakaslea, eta bestelakoan artean, amatasunaren inguruan dauden mitoen

gainean jardungo dute. Hala azaldu du Esther Lizarralde, Emakume Txokoko teknikariak: "Amatasuna modu naturalean bizi dugu eta akaso ez dugu kontuan hartzen hainbat baldintza eta ezaugarri izan dituela Historian zehar eta hainbat kulturetan. Horien baitan eratzten joan dira hainbat mito eta esan dezakegu mitifikatu egin dela amatasuna. Ba ote dagoen ama senik,

ama on edo txarraren mitoak, naturalizatu egin diren ereduak, mito bilakatu den amatasun eredu eta abarren gaineko hausnarketa egingo dugu".

ESTEREOTIPOAK APURTU GURAN

Besteak beste, Esther Lizarralde gaineratu du gaur egun amatasunaren alde positiboa dela nabarmentzen dutena: "Zabaltzen diguten amaren estereotipoa da pozik dagoenaren amarena, asebeteta dagoenarena... eta amatasunak suposatzen dituen beste alderdiak, bereziki gaur egun bizi garen moduan bizi izanda, horiek ez dira azaleratzen. Ama-

tasuna giza balorea da eta uste dut haren alderdi polita bakarrik erakusten zaigula interesak dudelako horren atzetik eta bizi garelako gizarte eredu batean non familiak eta ugalketak garrantzi berezia duten".

BITARTEKARIA

Lizarralde emandako xehetasunen arabera, hasi dira lantegirako izenak hartzen, baina oraindik bada gehiagorendako lekua. Ikastaroa hasi baino astebebe lehenagora arteko eskaerak onartuko dituztela azpimarratu du Emakume Txokoko teknikariak. Izena emateko: 943 79 41 39.

> ELIZA

Meza aldaketak, margotze lanak direla-eta

San Frantzisko eliza margotzen ari direla eta, Arrasateko parrokiatik jakinarazi dute, asteburuko mezak San Juan Bataiatzailea parrokiara pasatuko dituztela. Hain zuzen ere, zapatuan 19:00etan, eta domekan 09:00etan eta 19:00etan izango dira mezak. Horrez gainera jakinarazi dute parrokiako berezko mezak mantendu egingo direla: 11:00etan eta 12:30ean.

> KIROLA

Hiru handiak hiru egunetan egiteko mendi ibilaldia

AED elkarteak aurturten ere, *Hiru Haundixek Hiru Egunetan* izeneko mendi martxa antolatuko du. Maiatzeko zubia aprobetxatu eta maiatzaren 1ean, 2an eta 3an egingo dute; kontuan hartu dute hurrengo eguna domeka dela, eta horrek deskantsatzeko aukera emango diela mendizaleei.

Ibilbidea iazko bera izango dela iragarri dute: lehenengo etapa Zaldundo-Aizkorri-Leintz Gatzaga izango da; bigarrena, Gatzagatik Otxandiora, Anboto igoz. Eta azkena, Otxandio-Gorbea-Murua.

Izena emateko epea zabalik dago eta apirilaren 23an bukatuko da. Interesa dutenek adi ibili beharko dute, izan ere, mugatuta izango da partehartzaile kopurua; asko jota 40 lagunek parte hartu ahal izango dute. Informazio gehiago lortzeko edo izena emateko, honako telefonora dei daiteke: 943 77 12 28.

> AISIA

Bidaiein gaineko hitzaldiak, eguen eta egubakoitzean

Zaharberritik iragarri dute datorren apirilaren 17an, eguena, bidaiein gaineko diapositiba emanaldi bi izango direla Kulturaten, bata goizean eta bestea arratsaldean. Hain zuzen ere, Lontxo izeneko bidaiari gasteiztarrak egingo du diapositiba emanaldia; munduan zehar bizikletan hainbat bidaiaria egingo dako da Lontxo.

Hala, goizeko emanaldia (10:30), bost kontinentetan barrena ateratako argazki bildumarekin egingo du; horren harira, hurrengo egunean, egubakoitzea, emanaldi bera egingo du, Bedoñako Eskola Etxean (19:30).

Arratsaldeko emanaldia berriz (18:00), Europa eta Afrikaren gainekoa izango da. Bi emanaldi horiek Euskaltegiko ekitaldien barruan antolatu ditu Zaharberrik. >

Mila Lete > Aranzadi Ikastolako idazkari ohia

"Pozgarria da ikustea ikasle izandakoek bizitzan aurrera egin dutela; ondo, gainera"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Mila Lete erretiratu berri da; Aste Santu aurreko astea izan zuen azkena lanean. Aranzadi Ikastolan 31 urte eman ditu idazkari eta horregatik, besteak beste, herriko ume belaualdi-eta guraso-ugarirendako oso ezaguna da.

Noiz eta nola iritsi ziren Aranzadi Ikastolara?

1977. urtean. Ordurako sei urte zeramatzen martxan, eta idazkaritza lanak Maritere Peñak egiten zituen, lanordutatik kanpo, guraso eta irakasleen laguntzarekin. Baina ikastola hazten zihoan, eta hazten zihoan eta lanak ere areagotzen. Hortaz, pentsatu zuten momentua zela pertsona bat hartzeko idazkaritza lanetarako. Hala, froga egin zuten, aurkeztu nintzen, eta halaxe hasi nintzen.

Zein izan da zure zeregina?

Administrazio lanak, telefonoa erantzun... Nik uste, denetarik egin dudala. Dena den, azken urteetan lanak sailkatzen joan dira eta bakoitzak berea izan du, baina garai hartan, denetarik egitea tokatu zitzaidan.

31 urte eman dituzu Aranzadin. Gauzak asko aldatuko ziren urte guztian...

Bai, izugarri aldatu da eta gauza asko aldatu dira gainera: erakunde gisa aldatu da, eskola proiektuetan ere aldatu da, metodologian, teknologia berriak sartu dira... Azken batean, gizarteak eskatzen dituen aldaketei erantzuteko joan da aldatzen.

Exijentzia maila ere nabarmen aldatu da, gainerako arlo guztietan gertatu den bezala. Lehenago gauzak sinpleagoak ziren.

Zer da Aranzadiko jardunak eman dizun gauzarik onena?

Nire lana oso atsegina izan da, askotarikoa, gainera. Eman didan gauza hoberena da jendearekin harremanak egiteko aukera. Harremana izan dut guraso jator



Mila Lete Irizar etxeko lorategian.

MONIKA BELASTEGI

askorekin, ikastola munduko jendearekin, Hezkuntza saileko jendearekin. Baina, bereziki egin ditudan harremanik garrantzitsuenak izan dira lankideekikoak. Lankide bikainak izan ditut.

Urte askotako lankideak zarete gainera, batzuk.

Bai. Nik baino denbora gehiago eman dutenak ere badira, Aranzadiren sorreratik beretik daudenak. Batzuk erretiratu joan dira,

berriak sartu dira... Oso lan giro ona izan dugu. Eta izan dugu, baita ere, lanerako ilusio handia eta hori oso garrantzitsua da; ilusio handia izan dugu Aranzadi ikastola aurrera ateratzeko.

"Urteotan asko aldatu da Aranzadi. Azken batean, gizarteak eskatzen dituen aldaketei erantzuteko"

"Lanak eman didan gauzarik hoberena izan da harremanak egiteko aukera; bereziki lankideekin"

"Hainbat zailtasun izan ditugu eta horiek gainditzen lagundu ditu lanerako ilusioak eta batuta egoteak"

Izan ere, guztia ez da arrosa kolorekoa izan.

Ez. Nik neuk ez ditut ezagutu beranduago sartu nintzelako-ikastola martxan jartzeko hasierako oztopoak, baina handiak izan ziren. Aurrerago ere ezagutu ditugu beste zailtasun batzuk eta uste dut salbatu gaituela lehen esandako ilusio horrek eta batuta egoteak.

Gurasoak ere ikastolaren oinarri sendoa izan dira.

Bai, ikastolaren oso zati garrantzitsua izan dira. Gurasoak izugarri inplikatu dira.

Gaur egun ere jarraitzen du inplikazioak?

Gauza guztietan bezala aldatu egin dira gauzak, baina oraindik inplikazio handia dago. Beste arlo batzuk begiratu gero, hori galtzen doala ikusten da, bakoitzak gure bizimodua egiten dugu, ez daukagu astirik beste ezeri eskaintzeko, baina gurasoen kasuan, inplikazioak jarraitzen du.

Une gogoangarri asko izango dituzu, baina bat aipatzea eskatuko nizuke.

Askok daude, baina bat aipatzearren, ikastolako ikasle izan direnak ikustea gai direla euren bizimodua egiteko, eta ondo, gainera. Ikasleek urte asko ematen dituzte eskolan, gaur egun, 2tik 18ra arte, eta zure zatitxo direla sentitzen duzu. Hortaz, pozgarria da ikustea bizimodua aurrera ateratzeko gai direla. Hori da, azken batean gure helburua: euskara eta euskal kultura aurrera ateratzea eta ikasleak bizitzarako prestatzea jator eta pozik bizi daitezen.

Eta ze asmo duzu orain?

Lasaiago bizi izatea, erlojuari begiratu barik. Etxekoei ere denbora gehiago eskainiko diet eta orain arte egin barik laga ditudan gauzak egiteko ere aprobetxatuko dut.

> UDALEKUAK

Etzi zabalduko dute udaleku irekietan izena emateko epea

Etzi, eguaztena, zabalduko dute udaleku irekietan izena emateko epea eta apirilaren 25era bitartean egongo da zabalik.

Izenematea izango da Xipizaro ludotekak Agorrosin Ekintza Gunean duen egoitzan, 17:00etatik 19:00etara bitartean. Kontuan izan behar da, bestalde, uztaileko udaleku irekiak direla 1994tik 2005era bitartean jaiotako umeendako.

> HITZALDIA

Kooperazioaren gaineko hitzaldia izango da hilaren 24an

Gazte Informazio Guneak hitzaldia antolatu du apirilaren 24rako. *Aurten kooperante izan nahi duzu?* du izenburua eta batik bat gazteei zuzenduta dago.

Hizlaria izango da Silvia Carballo, Gipuzkoako Idazkaritza Teknikoaren arduraduna eta Euskadiko GKEen Koordinakundeko kidea. Hitzaldia 18:30ean izango da, Errotalde kultura etxean, doan.

> OPORRALDIAK

14-17 urte artekoendako izenematea zabalduko dute hilaren 17an

Aldundiak antolatzen dituen Oporraldiak 08n izena emateko interesa duten 14 eta 17 urte bitarteko gazteendako izenematea egunean, hilak 17, zabalduko dute. Izenemate hori zozketan parte hartzeko izango da. Izenematea egin daiteke www.gipuzkoagazteria.net/oporraldi helbidean, eta Bergarako Gazte Informazio Bulegoan edo Kultura zerbitzuan.

> AZPIEGITURAK

Osintxuko frontoia ezingo da erabili gaur hasi egubakoitzera arte

Udaletik jakinarazi dutenez, Osintxuko pilotalekuan hainbat hobekuntza-lan egitekoak dira, hormak konpondu eta margotu, besteak beste. Hori horrela, ezin izango da Osintxuko pilotalekua erabili lanok irauten duten bitartean, hau da, gaur, astelehena, hasi eta egubakoitzera arte, apirilaren 18ra bitartean.

Erabiltzaileei barkamena eskatzen diete Udaletik.

> IRTEERA

Ez dago txartelik San Joxepe antolatutako irteerarako

San Joxepe erretiratuen elkartetik jakinarazi dutenez, irailaren bigarren hamabostaldirako Extremadurara antolatutako bidaiarako leku guztiak hartuta daude dagoeneko. Bi autobus bete dira.

Bestalde, jakinarazi nahi diete izena eman duten guztiei ekaina aurretik ordaindu behar dutela bidaiaren horren lehenengo zatia.

LANAK > BERRIKUNTZA

Apirilaren 21era arte aurkez daitezke Araotzeko plaza berritzeko proposamenak

Lanak egiteko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratu zen martxoaren 25ean

Foru Aldundiak aurrekonturen %55 ordainduko du; gainontzekoa, udalak

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Araotzeko plaza eraberritzeko lanen prozesuak aurrera darrai. Interesatuak, dagoeneko, aurkez ditzakete beraien proposamenak udal bulegoetan, hain justu ere, apirilaren 21era arte. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratu zen martxoaren 25ean.

Araotzeko bizilagunek auzoko plaza berritzeko eskaera egin zioten udalari; eta, eskaera aintzat hartuta berrikuntza lanak egingo dituzte. Elizaren, bolatokiaren, eskolaren eta frontoiaren aurrean dagoen plazan bi motatako galtzada-harriak (adquin) jarriko dituzte. Galtzad-harriak 15x15 zentimetrokoak izango dira, eta, guztira, 212 metro koadro eraberrituko dituzte.

PROPOSAMEN MERKEENA

Hainbat proiektu eskatu ondoren, Itziar Zelaia arkitektoak egindakoa onartu du udalak. Proiektuaren gehienezko aurrekontua 45.860 eurokoa da. Aurre-



PLAZA Elizaren, frontoiaren, eskolaren eta bolatokiaren aurreko gunea eraberrituko dute.

MIREIA BIKUÑA

kontu hori gehien merkatzen duen enpresak egingo ditu Araotz auzoko plaza eraberritzeko lanak. Lanak esleitu ondoren, hiru hilabeteko epea izango dute eraberritzea egiteko. Udalaren asmoa da udaberrian hasita, lanok, uda bukaerarako amaituta egotea. Bestalde, Foru Aldun-

diak aurrekontuaren %55 ordainduko du, eta gainerako %45a Udalak hartuko du bere gain.

APARKALEKUAK, EZ

Araotzeko bizilagunek 2007an Udalari egindako eskaera zerrendan, aparkaleku berriak egiteko eskaera zegoen, besteak beste.

Udalak eskaera guztiak aztertu zituen, eta aparkalekuan gaia, momentuz, alde batera uzteko erabakia hartu zuen.

Araotzeko aparkalekuak egokitu eta gehiago egin ahal izateko lursailen trukaketak egin behar direla diote, eta gaia, aurrerago aztertuko dutela esan dute.

Elkar Heziko ikasleen elkartrukea Holandan

Elkar Hezi ikastetxeke DBHko 4. mailako ikasleak Holandan egon dira, martxoaren 9tik 15era, Mill-Hill College-ko ikasleekin elkartrukea egiten. Besteak beste, Goirleko udaletxean egon ziren hango alkatearekin. Holandara egindako bisitarekin bukatutzat eman dute elkartrukea. Horren harira, Holandako ikasleak urrian egon ziren Oñatin.

Elkar Hezik egin duen elkartrukearen muina Europako herrialde txikien arteko hartu-eman bultzatzea izan da.



ELKAR HEZI

> DEIALDIA

Ehiza-legedi berriari buruzko bilera apirilaren 18an

Ehizan egiteko erabiltzen diren postuak arautzen dituen ehiza legedi berriari buruzko hitzaldia egingo du Pago Uso elkarteak. Hain justu ere, usoak eta oilagorrek ehizatzeke erabiltzen diren postuak zozketa bidez banatuko dira aurrerantzean. Oñatin dauden ehiza postuak zenbakitu egingo dituzte, eta zozketa bidez erabakiko da ehiztari bakoitzak zein egunetan erabili ahaliko duen.

Bilera informatiboa apirilaren 18an izango da elkartean bertan, 19:00etan.

Bestalde, zabalik dago apirilaren 19an Zanbranan jokatuko den herri mailako ehiza txapelketan izena emateko epea.

> ANTZERKIA

'Txitxarra eta inurria' antzezlanerako sarrerak salgai daude

Markeliñe taldeak zapatuan hilaren 19an, eskainiko duen emanaldira joateko sarrerak salgai jarri dituzte kultura etxean. Hain zuzen ere, 10:00etatik 13:00etara, bulegoan salduko dituzte, eta 16:30etik 20:30era, harreran. Emanaldirako sarrerak hiru eurotan salduko dituzte.

Txitxarra eta inurria antzezlan, La Fontainek idatzitako *La cigarra y la hormiga* izeneko alegian oinarritzen da. Hau da, negurako jana biltzen duten inurriaren, eta egun guztia abesten pasatzen duen txiritaren istorioa kontatzen du. Markeliñe taldearen lanean, Ana Martinez eta Itziar Fragua dira inurriak, eta Pako Revueltas, txiritaria.

> DEIALDIA

Hitzaldia eta ikastaroa Elkar Hezi ikastetxearen eskutik

Elkar Hezi ikastetxeak hitzaldia eta ikastaroa antolatu ditu datozen egunetarako. Alde batetik, hitzaldia iragartzen dute biharko. *Nola egiten diegu aurre familian nerabeak diren seme-alabek sortarazten dituzten aldaketei?* buruz berba egingo du Joxe Amiama psikopedagogoak, 18:30ean, Santa Marina ikastetxeke mediatekan.

Beste alde batetik, Bake-tiken laguntzarekin, maiatzean *Gatazkak etikoki mantzen* izeneko ikastaroa egingo dute. Izenemate epea zabalik dago.

Azkenik, eguaztenean, 18:30ean, *Erabakiak hartzen irakasten* garaien inguruan hausnarketa egingo dute,

ESKORIATZA > UDALA

Ikerketa batzordeak uste du aurreko agintaldian irregulartasunak izan zirela

Egubakoitzean ez ohiko osoko bilkura egin zuten Udalan, ikerketa batzordeak egindako txostenaren ondorio nagusiak jakinarazteko

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Aurreko agintaldian San Juan kaleko eta Dorleta auzoko lanetan irregulartasunak eman zirela ondorioztatu du Udalak osatutako Ikerketa batzorde bereziak. Horixe baieztatu zuen egubakoitzean egindako ez ohiko osoko bilkuran batzorde horretako presidente Iñaki Pierruguesek (PSE-EE).

Joan zen abenduaren 26an ikerketa batzorde berezia eratzea onartu zuen osoko bilkuran. Orduetik hona zazpi alditan bildu dira batzordekideak, Dorleta auzoan nahiz San Juan kaleko lanetan legez kanpoko jarduerarik egin ote dituzten edo ez argitzeko.

Horretarako, obra horiek egin zituzten Injelan eta Frixi eraikuntza enprekin eta garai hartako alkate Juan Carlos Bengoarekin eta Hirigintza zinegotzi Josu



TXOSTENA Joan zen egubakoitzean egindako bilkuran txostena aurkeztu zen.

MIRIAN BITERI

Ezkurdiarekin bildu ziren batzordekideak. Dorleta auzoko lanak egin zituen enpresak, Fonortek, uko egin zion ikerketa batzordean izateari.

Egindako ikerketen gaineko txostenaren berri eman zuen batzordeko presidentek egubakoitzean. Txostenaren hiruga-

ren puntuak honako hau dio: "San Juan kaleko obretan ezarritako lege prozeduraren ez betetzeak eman dira: aurrekontuetan aurreikusita ez zeuden gastuak eta dagokien udal organoek horren ezagutzarik ez izatea. Irregularitasun horiek bideratzen saiatu baziren ere, ez zen helburu hori

lortu. Informazio eta gardentasun falta eman da eta legez kanpo jarduten ari zela jakina izan da".

Pierruguesen arabera, "irregulartasunak eman direla ondorioztatu da. Prozedurak ez ziren ondo egin eta ondorioz, gaur egun, Udalak zorra dauka eraikuntza-enprezarekin. Zor horren

berri ez zen eman Hirigintza batzordean eta osoko bilkuran". Ikerketa batzorde bereziarekin "gauzak argi geratu" direla eta hemendik aurrera, "horrelakorik berriro gerta ez dadin" espero duela aipatu du batzordeko presidentek.

"HELBURUAK BETE DIRA"

Osoko bilkuraren ostean, Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabasterrek horren gainean hitz egin zuen. Lehenik eta behin, ikerketa batzordeko partaideak zoriondu zituen, egindako lanagatik: "helburuak bete dira. Helburu nagusia zen Dorleta auzoan eta San Juan kalean gertatutakoa argitzea eta oso ondo argitu dute".

Txostenak jasotzen dituen proposamenak "oso interesanteak" direla uste du. Etorkizunean, Udalak onartzen dituen urbanizazio proiektuekin "zorrotzagoa" izan beharra dagoela jasotzen da, besteak beste, txosten horretan. Gainera, batzordeak ateratako irregulartasunak "larriak" direla eta beraz, horren gainean, hausnarketa sakona egin beharra dagoela uste du.

Aurreko agintaldiko alkate Juan Carlos Bengoarekin hitz egin dugu eta, momentuz, ez duela adierazpenik egingo jakinaraziz digu.



M.B.

Basotxoko zuzendaritza berriaren bilera

Aretxabaleko Basotxo erretiratuen elkarteak zuzendaritza berritu du. Imanol Arantzabal izango da hemendik aurrera presidente berria; Itziar Errasti, presidenteordea; Jesus Mari Martinez, idazkaria; eta Carlos Gutierrez, diruzaina.

Bokal bezala, berriz, Juanita Jauregik, Francisca Sasiainek eta Javier Sainzek jardungo dute. Dagoeneko lanean hasi da zuzendaritza berria. Irudian, joan zen egunean, arratsaldean, erretiratuen elkartearen egindako batzarrean.

ARETXABALETA > UDALA

Frankismo garaiko biktimak omentzea onartu du Udalak

Urteko apirilaren 14an udaletxeko balkoian errepublikako ikurra jartzearen puntua izan zen eztabaida gehien sortu zuena

M.B. > ARETXABALETA

Aretxabaleko Udalak ez ohiko osoko bilkura egin zuen egunean. Besteak beste, Espainiako Gerrako eta frankismo biktimen eta trantsizioan, askatasunak berreskuratzeko borrokatu eta demokrazia defendatu zuten onspenaren gaineko deklarazio instituzionala onartu zen han. Ezker Batua izan da proposamen horren bultzatzailea.

Proposamenak lau puntu nagusi ditu. Lehenengoan, Udalak "frankismoaren kontra borrokatu eta demokraziaren hasierara arte frankismoaren diktadu-

rako biktimen onspen etikoa, politikoa eta soziala" egiten da. Bigarrenik, omenaldia egingo duela eta hirugarrenik, udalerrria berrikusiko duela onartu du, egon daitekeen frankismo garaiko sinbologia kentzeko asmoz.

ERREPUBLIKAREN IKURRA

Baina, laugarren puntua izan zen udal ordezkarien artean eztabaida gehien sortu zuena. Gaur, apirilak 14, udaletxeko balkoian errepublikako ikurra jartzea aurreikusten du horrek, "demokrazioaren alde Aretxabaletan borroka egin zutenak gogora ekartzeko".

Botazioa bi zatitan banatu zen. Batetik, lehenengo hiru puntuak bozkatu zituzten udal ordezkariak. Eta bigarrenik, laugarrenaren botazioa egin zen. Kasu horretan, PSE kontra azaldu zen eta EA abstenitu egin zen.

PSEko zinegotzi Ainhoa Sagarribaik kontrako botoa arrazoi-tu gura izan zuen: "Gaur egungo

sistemak bi ikur onartzen ditu: espainiarra eta komunitate bakoitzarena. Errepublikar ikurra ez du ez bata eta ez bestea ordezkatzeko eta hori jartzeak legez kontrako izan daiteke". EAk euskal errepublikar ikurra aldarrikatu zuen: "Hori ez zen gure errepublika eta ikurra".

IRIARTE

Umeen
denda

Helduen
lentzeria



Durana 8

Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

ELGETA > MAGIA MOSTRA

Maiatzeko hirugarren aste bukaera magikoa izango da Elgetan

Magia Gala aurten barikuan, hilak 16, egingo dute Espaloian eta bertan ospe handiko bost mago ikusteko aukera egongo da

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Mentalismoa izan da aste bukaera honetan nagusi Espaloia Kafe Antzokian. Anthony Blakek Elgetara egiten duen hirugarren bisitan bi funtzio egin ditu, eta beste behin zur eta lur utzi ditu aurrez aurre izan dituen ikusleak.

Espaloiaiko magia denboraldia zabaldu du Anthony Blake jai egunotan, izan ere Elgetako antzokian dagoeneko gertu dute III. Magia Mostra.

Maiatzaren 16an, 17an eta 18an egingo dute Magia Mostra Elgetan. Hiru egun horietan mundu mailan ospe handiko hamaika mago bertatik bertara lanean ikusteko aukera egongo da herrian.

GALA BARIKUAN, HILAK 16

Aurreko bi edizioetan egin zuten moduan Mostrako lehenengo bi egunetan mago bakarrek ikuskizuna eta Magia Gala antolatu dituzte. Aurten, baina, ordena aldatu egin dute. Aurreko urtetan ez bezala barikuan, hilak



MOSTRA Morrisonen egingo ditu aurkezle lana.

ARTXIBOA

16, Magia Galak zabalduko du Mostra. Elgetan dagoeneko ezaguna den Morrison magoak egingo ditu aurkezle lanak. Galan, gainera, lau aktuzio ikusteko aukera egongo da. Bertan izango dira Andy Gonzalez madrildarra, Ilva Scali frantziarra eta Argentinatik Mirko eta Brando & Silvana bikotea. Diziiplina oso ezberdinak jorratzen dituzte, beraz, denetarik ikusteko aukera egongo da Gala horretan. Barikuan, 22:30ean emango diote hasiera ikuskizunari.

IZARRA, MIGUE MAGOA

Zapatuan, maiatzak 17, karta jokoak egiten maisua den Migue Magoa izango da Espaloian. 2007an munduko magorik onenaren saria eskuratu zuen Miguek karta jokoen diziplinan.

Domeka eguerdian, azkenik, kaleko magia egingo du Justo Thaus ilusionistak. *Flikto* izeneko ikuskizuna ekarriko du Elgetara, txikiendako eta nagusiendako erakargarria den muntaia. 12:45ean hasiko da funtzioa.

DEIALDI ZABALA

Kultura sailak herriko taldeei egin die bilerara joateko deia; kultura eta kirol elkartei zein bestelako jardueretan diharduten taldeetako ordezkari. Hainbat koadrilari ere egin die gonbidapena. Baina batzarrera jaiak antolatzeko interesa duen edozein herritar joan daiteke.

"Asmoa da denen iritzia jasotzea eta zenbat eta jende gehiago izan bileran proposamen gehiago jasoko dugu. Horrela, denon ardura izango da jaietan ahalik eta gusturen ibiltzeko ekintzak antolatzea", esan digu Jone Larrañaga kultura teknikariak.

ANTZUOLA > JAIK

Batzordeak bilera egingo du eguenean jaiak antolatzeko

Jaiak prestatzeko interesa duen edonork har dezake parte 18:30ean udaletxean egingo duten batzarrean

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Uztailaren 17an hasi eta 20ra bitartean ospatuko dituzte aurten herriko jaiak Antzuolan.

Ohiko ekitaldiak mantenduko dituzte jaietan, hain ezaguna den Mairuaren Alardea, esatera

ko. Baina gainontzean herriko giroa alaitzeko zein ekintza gertatuko dituzten erabaki gabe dago oraindik.

Horretarako elkartuko da, hain zuzen ere, Jai Batzordea asteen. Batzarra egingo dute eguenean, 18:30ean, udaletxeko bilera gelan.

Bilera horretan jaso nahi dituzte ahalik eta proposamen gehien, ondoren, denen artean, aztertzeko eta erabakitzeko besteak beste zein musika taldek jardungo duten, zein beste ekintza berri antolatu daitekeen, adin bakoitzerako egokiak diren jarduerak antolatzeko...



OSOKO BILKURA Udalbatzako kideak elkartuta eguenean.

M.A.

LEINTZ GATZAGA > UDAL AURREKONTUA

427.826 euroko aurrekontua onartu du udalbatzak

Inbertsioendako 60.000 euro aurreikusi ditu, horietatik 23.000 euro Aldunditik jasotzeko

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Eguenean, hilak 10, egindako ohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak 2008ko udal aurrekontua. 427.826 eurokoa da, eta erdia inguru udalean sortzen diren gastu arruntak ordaintzeko erabiliko dute.

euro-, eta berogailua jartzeko gatz museoan eta eskolan. Gainera, argindarraren transformagailua aldatu behar dute. Horretarako, baina, mailegua eskatu beharko du Udalak.

BEROGAILUA ESKOLAN

Inbertsioak egiteko diru gutxi dagoela onartu zuen Eusebio Villar alkateak: 60.000 euro. Gainera, horietatik 23.000 euro Aldundiak emango dizkio. Diru partidarik handienak izango dira bigarren faseko azpiegitura lanak ordaintzeko -lurren desjabetzeak egiteko 14.000

2008ko udal aurrekontua

Pertsonal gastua	107.000 €
Udal gastu arruntak	214.000 €
Transferentziak	37.000 €
Inbertsioak	60.000 €
Beste gastu batzuk	6.000 €
Aurrekontu osoa	427.826 €

ARAMAIO > ABIADURA HANDIKO TRENA

Maiatzaren 6, 7, 8 eta 13an ekingo diote aurretiazko aktak sinatzeari Aramaion

57 lurjabe izango dira guztira Aramaion maiatza hasieran desjabetzen aurretiazko aktak sinatuko dituztenak

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Abiadura Handiko Trenak eragin zuzena izango du Aramaio-ko lurretan; trenaren proiektuak 16 hektarea inguru hartuko ditu eta 57 lurjabe ireragingo dio horrek.

Orain dela egun batzuk BOEn desjabetzen aurretiazko aktak sinatzeko egutegia argitaratu zuten, herriz herri. Aramaion maiatzaren 6, 7, 8 eta 13an egingo dituzte aurretiaz-

ko akten altxapenak. Maiatzaren 6an 49 lursail desjabetuko dituzte; maiatzaren 7an, 40; maiatzaren 8an, 27 eta maiatzaren 13an, 20 lursail. Lurren ugazabak, baina, egonotan jasotzen dabilza lurjabe bakoitzak aurretiazko akta zein egunetan sinatu behar duen zehazten duen eskutitza. Egun horietan sinatuko dituzten aktetan ugazaba bakoitzaren desjabetze azalera zehaztuko da metro koadrotan.

Aramaio AHT Gelditu Elkarlaneko kideek salatu dute Adif (Administrador de infraestructuras ferroviarias) lurjabeen diru eskaintzak egiten dabilela azken asteotan, aurretiazko desjabetze akta sinatu aurretik akordio batera iristeko eta tramiteak azkar- tu eta errazteko.

Kirola



> **FUTBOLA**
Aloña Mendik
7-2 irabazi dio
Idiazabali
etxean > 16



> **SASKIBALOIA**
Arrasatearrek
Leclerc-en etxean
77-85 irabazi
zuten > 18



> **ESKUBALOIA**
Bergarako taldeak
aukerak ditu
oraindik mailari
eusteko > 18



> **ELKARRIZKETA**
Rafa Carriet
Eskoriatzako
kenpo taldeko
maisua > 20



SARITUAK Udaberri txapelketan saria jaso duten pilotariak eta elkarteetako kideak.

A.E.

PILOTA > UDABERRI TXAPELKETA

Arrasate eta Antzuola Udaberri txapelketan garaile izan dira

ARRASATE

Arrasateko Agirre-Uribarren bikoteak 19-22 irabazi zuen Añorgaren aurka

2. MAILA

Ibarreko bi bikote lehiatu ziren bigarren mailako finalean: Olalde eta Eskoriatza

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Udaberri txapelketako bi txapela geratu dira ibarrean: lehenengo mailan, arrasatearrentzat izan zen garaipena eta bigarren mailan, Antzuolakoak Eskoriatzakoak baino gehiago izan ziren.

AÑORGA-ARRASATE
Lehenengo mailako arteko partidua atzoko hirugarren lehia izan zen. 12:00ak pasa ekin zuten Agirre eta Uribarren arrasatearrek eta Añorgako bikoteak norgehiagoka.

Txanpona gorri atera zen eta lehenengo satea Añorgako pilotarietara egin zuten. Lehenengo tantoa, ostera, arrasatearrentzat izan zen. Bergarako pilotalekuan ez zen zale asko bildu; hala ere, Uribarren eta Agirrek "Uri-Txiribi Arrasatera Udaberri" jartzen zuten aldeko pankarta zeukaten.

2-4 aurreratu ziren Agirre eta Uribarren bikote urdina markagailuan. Gero, Añorgako bikoteak 5-4 aurre hartzea lortu zuen. Baina, hori izan zen bikote gorria markagailuan aurretik jarri zen une bakarra.

Norgehiagoka oso luzea izan zen; eta, orokorrean ez zen ikuskerako partidua izan. Atzean ondo eutsi zuen Uribarren eta Agirrek ere; atzeko koadroetara bota zituen pilota asko Agirrek.

Lau puntuko aldearekin iritsi ziren urdinak 11. tantora. Gero, Añorgako aldea txikitzea lortu zuten eta 16-17 eta 17-18 urreratu ziren markagailuan. Azkeneko tantoetan, baina, Arrasatekoak hobeto ibili ziren eta 17-21 jarri ziren markagailuan. Agirrek azkeneko satea atera zuenean Bergarako pilotalekuko ikusleek txalo egin zuten. Mauri Zubillaga entre-

natzaileak, aulkitik "lotsatu barik" jokatzeko eskatzen zien bere pilotarietara. Añorgakoek beste tanto bat egin zuten partidua amaitu aurretik. Azken emaitza 19-22 izan zen.

ANTZUOLA-ESKORIATZA

Bigarren mailan, ibarreko bi taldek jokatu zuten elkarren aurka: Antzuolako Olalde eta Eskoria-

tzak. "Hasieratan kostatu egin zaigu partiduan sartzea baina behin erritmoa hartu dugunean ondo jokatu dugu", esan zuen Olalde elkarte Biterik partidua amaieran. Muruamendiaraz eta Biteri 22-13 nagusitu ziren Gracia eta Oyonen aurka. Lehenengo mailako lehia, 22-3 nagusitu zen Astigarraga Lazkaoren aurka.

"Hasieratan kostatu egin zaigu partiduan sartzea; gero, erritmo bizkorreko partidua izan da eta azkar amaitu da "

Xabi Biteri > Olaldeko pilotaria

"Ez dakit merezi izan dugun irabaztea; baina, azkenean txapela lortu dugu. Atzean ondo eutsi du Uribarren eta "

Aitor Agirre > Arrasateko pilotaria

PREFERENTE MAILA > ALOÑA MENDI-IDIAZABAL

Beheko postuetatik ihes egiteko, gol festa Azkoagainen

ALOÑA MENDI

7-2

IDIAZABAL

Aloña Mendi > Idigoras, Elgarresta, Igartua (Astigarraga), Idigoras, Palacios, Camino (Biain), Arregi (Aramendi), Zubia (Arregi), Arregi (Juaristi), Carpintero eta Olalde.

Idiazabal > Gabri, Cristian, Argitano, Imaz, Urreta, Zabalza, Artola, Serrano, Didaka, Loidi eta Yurrita.

Epailea > Silguero jauna. Laguntzaileak Tejas eta Anduaga izan ziren. Arazorik ez zuten izan. Euria egin zuen partiduko zatirik handienan.

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Aspaldiko partez Aloñak irabazi egin du eta, nola gainera; atzo, Azkoagainen gol festa eskaini zuten oñatiarrek etxekoan aurrean. Gauzak ondo irteten hasita, atzo dena atera zitzaizen ondo etxekoei. Hala ere, azpimarratu behar da, emaitza mardula izan bazen ere, lehenengo zatian joko aldetik Idiazabalgo mutilak gehiago izan zirela. Aloñak baloi luzetan egin zuen min.

ATSEDENERA, AURRETIK

Xabi Caminok kontraerasoan sartu zuen Aloñaren lehenengo gola (24. minutuan). 28. minutuan Artolak egin zuen berdinketaren gola. Baina, atsedeneraren



LEHIA Elgarresta eta Serrano buruz baloia jo guran.

JOSETXO ARANTZABAL

aurretik, Iñigo Arregik egin zituen beste bi golak, markagailua 3-1 utziz.

Aldagelatik bueltan, etxeko taldea askoz gehiago izan zen. 55. minutuan, Robertok gol ikusgarria lortu zuen. Gero, Idiazaba-

lek bigarrena egin zuen; baina, minutu gutxira beste hiru egin zituen Aloñak. Golegileak Iker Olalde, Xabi Camino eta Jon Igartua izan ziren. Partidu amaieran Elgarrestak esan bezala, garrantzitsua zen atzo irabaztea behe-

ko postuetatik irteteko. Gol festaz galdetean, "hurrengoan gol beharrean egongo gara eta ordu-rako baten bat uztea ez legoke gaizki", esan zuen. Partiduz partidu joan behar dutela gogorazi zuen, mailari eutsi arte.

PREFERENTE MAILA > UDA, BOSGARREN TOKIAN

Ondarroako Aurrerari 1-0 irabazi eta bizkaitarrak aurreratu ditu UDAk sailkapenean

UDA

1-0

ONDARROAKO AUERRERA

E.M. > BERGARA

Jardunaldi borobila izan zen atzoko UDarentzat: Ondarroako Aurrerari 1-0 irabazi zion Ibarran eta bide batez bizkaitarrak aurreratu zituzten sailkapenean: bosgarren tokian dira orain Igor Arenazaren mutilak.

Atzokoa ez zen partidu polita izan. Bi taldeek ere ikuskizun eskasa eskaini zieten Ibarran batutako ikusleei. Sailkapenean daukaten tokia ez zuten inondik inora justifikatu aretxabaletarrek eta ondarrutarrek. Gauzak berehala etxekoan alde jarri ziren: epaileak Ondarroako Aurrerako bi jokalaririk egotzi



UDA Atzoko emaitzaren ostean, 5. tokian dira aretxabaletarrak.

J.A.

zituen atsedenaldiaren aurretik. Bisitarien protestek ez zuten ezertarako balio izan.

BIGARREN ZATIAN

Partiduko gol bakarra ez zen bigarren zatira arte etorri. Eri-

kok egin zuen garaipenaren gola, area txikian buruz errematatu ondoren. Etxekoek izan zuten beste aukeraren bat edo beste aldea handitzeko, baina ez ziren azken metroetan fin ibili. Atzoko onena, emaitza.

PREFERENTE

Hamar jokalarirekin Mondrak ezin

ORDIZIA

2-1

MONDRA

E.M. > BERGARA

Markagailuan 1-0koa zela, epaileak Mikel Calvo Mondra-ko atezaina egotzi zuen, ustez baloia, areatik kanpo, eskuarrekin ukitzeagatik. Jokaldi eztabaidagarria eta erabakigarria izan zen, falta horren ondorioz 2-0koa egin baitzuen Ordiziak, 15. minutuan.

Hortik aurrera, Mondrak nahikoa lan izan zuen defentsan; bigarren dagoen Ordiziak ezin izan zuen aldea handitu. Mondrak 85. minutuan egin zuen gola, Muruak penaltiz egindako golari esker.

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Real Union	57	28
2. Ordizia	55	28
3. Trintxerpe	52	28
4. Berio	52	28
5. UDA	47	28
6. Aurrera	45	28
7. Mondra	42	28
8. Hernani	36	28
9. Hondarribia	36	28
10. Euskalduna	36	28
11. Idiazabal	34	28
12. Aloña Mendi	32	28
13. Vasconia	21	28
14. Zumaia	29	28
15. Anaitasuna	27	28
16. Zestoa	25	28
17. Eibartarrak	24	28
18. Touring	22	28

Emaitzak

Zestoa-Zumaia	0-1
Aloña Mendi-Idiazabal	7-2
Vasconia-Anaitasuna	0-0
Real Union-Eibartarrak	4-0
Hondarribia-Hernani	0-3
Berio-Trintxerpe	2-3
Ordizia-Mondra	2-1
Euskalduna-Touring	3-1
UDA-Aurrera	1-0

Hurrengoak

Idiazabal-Zestoa	
Anaitasuna-Aloña Mendi	
Eibartarrak-Vasconia	
Hernani-Real Union	
Trintxerpe-Hondarribia	
Mondra-Berio	
Touring-Ordizia	
Aurrera-Euskalduna	
Zumaia-UDA	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA

Bergara-Urola	2-1
Oiartzun-Antzuola	4-4

BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA

Anaitasuna-UDA B	1-0
Dunboa-BTLS	1-6
Mondra b-Union Txiki	3-1

BIGARREN ERREGIONALA, KOPA

Zestoa-Elgeta	1-1
---------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Zumaia-Bergara	1-1
----------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA

Sto. Tomas Lizaso-Mondra	1-1
Aloña Mendi-Martutene	5-1

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK,

IGOERA FASEA

Herrera B-Aretx. Arizmendi B	0-0
------------------------------	-----

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK,

KOPA

Bergara	atsedena
---------	----------

OHOREZKO KADETEAK, IGOERA

Añorga-Aloña Mendi	3-1
Bergara-Hernani	0-1

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK,

IGOERA FASEA

Arrasate-Beti Gazte	3-0
UDA B-Billabona	3-4

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK,

KOPA

Bergara B-Mutriku	0-1
Arizmendi-Ilintxa	4-5

EMAKUMEZKOAK, IGOERA

Añorga-BTLS	0-5
-------------	-----

EMAKUMEZKOAK, KOPA

Mondra-Arizmendi	4-1
Mutriku-Bergara	3-0
Arizmendi B-Zestoa	0-6

AURIS
TOYOTA berria

Gidatu zure barrenak eramaten zaituen lekuraino,

150 €-tik aurrera hilean.

84 kutoa | UTB %4,90 | Sarrera: 4.963 €



Auris. Toyota berria.

Sentsazioak batzuetan ezin dituzu ulertu, eta zergatik ezin duzu sentitzen duzuna egin?

Bideratu zure sentsazioak Aurisn batekin, ezagutu eskaintzen dizuna, bere potentzia eta gozatu bere barruaz.

Nahiago baduzu Auris Toyota bat daukazu 13.550 €**-tik aurrera
www.euskoauto.toyota.es



TODAY TOMORROW **TOYOTA**



GARANTÍA
3 AÑOS
o 100.000 Km.

FINANCIAL
SERVICES



Información y prueba:
902 342 902

Kontzesionarioa

EuskoAuto

Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

*Toyota Auris 1.4 Disela 3 ate, 90 ZP. Publikoarentzako salmenta prezioa 15.650 €. BEZa matrikulazio zerga, promozioa eta kontzesionarioak gehitutakoa barne. Finantzazioa: 84 hilabetetara (150 -tako 84 kutoa). Sarrera 4.963 €. Hasierako komisiorik gabe. TIN %4,79. UTB %4,90. Atzeratutakoaren totala 17.563 €. Eskaintza baliagarria 08/04/30 Penintsula eta Balear uharteetarako biltegiak dauden autoendako. Eskaintza finantzarioa Toyota Kredibank GmbH Espainiako sukurtsala. R.E.B.E 08/14238 zenbakia ** Toyota Auris 1.4 3 ate, 97 ZP. Publikoarentzako salmenta prezioa Penintsulan eta Balear uharteetan biltegiak dauden autoendako. BEZa, matrikulazio zerga, promozioa eta kontzesionarioak gehitutakoa barne. Eskaintza baliagarria hilabete bukaera arte. Iragarkiko modeloa: Toyota Auris "Sport" 2.2 Disela 5 ate 177 ZP. Kontsumo mistoa: 6,2l / 100 km. CO2 emisioa 164 g/km.

SASKIBALOA > LEHENENGO MAILA, IGOERA FASEA

Bi puntu baino gehiago balio duen garaipena

Leclerc-en etxean irabazita gero eta gertuago dute arrasatearrek EBA ligara igoera

LECLERC

77-85

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Leclerc > Valiente (3), Fernandez (12), De la Torre (9), Ortiz (5), Fernandez, Llano (2), Marcaidea, Ortiz (14), Rodriguez (4), Almanza (2), Santamaria (7) eta Ruiz (12)

Mondragon Unibertsitatea > Gamarra (15), I. Zeziaga (3), Mallabiabarrena (7), Arejolaleiba, Peña (4), Atxa, Kintana (14), Hernandez (2), Alartzia (24), A. Zeziaga, Biain (16) eta Elortza.

Laurdenetako emaitzak > Lehenengo laurdena: 19-23; bigarren laurdena: 38-46; hirugarren laurdena: 52-66; laugarren laurdena: 77-85.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

"EBA bertan dago", oihukatzen zuten zaleek partidu amaieran. Izan ere, Arrasateko taldeak aurrerapauso handia eman du EBA ligara igotzeko lehian. Sailkapeneko bigarrenaren aurka irabazita lau puntuko aldea dute arrasatearrek.

Alartzia, Kintana, Biain, Hernandez eta Peñak hasi zuten lehia. Hasierako minutuak ez

ziren onak izan Iñaki Merinoren mutilentzat. Lehenengo bost minutuetan gasteiztarrek nagusi izan ziren; hala, hirugarren minuturako 12-2ko partziala egin zuten. Minutuak pasa ahala, Merinorenak indartu egin ziren. Alartziak 12-9koa sartu zuen eta gainera jaurtiketa libre behartu zuen, markagailua 12-10 utziz. Hurrengo jokaldian, Biainek berdinketa lortu zuen eta handik aurrera Arrasatekoak aurretik izan ziren lehia guztian.

ERREBOTEAN NAGUSI

"Erasoan ondo jokatu dugu, baita defentsan ere; baina, batez ere, errebotean ibili gara fin", esan zuen Imanol Zeziagak partidua amaitutakoan. Pozik zegoen Arrasateko jokalariek gaztea.

Arrasateko joandakoen babesa ezinbestekoa izan zen Landa-zuri kiroldegian. Javi Zurbano Ointxe elkarteko kidea, adibidez, gogotsu ibili zen taldea animatzen. Partidu amaieran, Merino entrenatzaileak eta jokalariek eskertu egin zuten zaleen babesa. Elkar besarkatuz, harmailetan zeudenak agurtu zituzten.



ALARTZIA Taldeko jokalaria beteroetarikoa bat da Alartzia; zapatuan, ondo ibili zen.

A.E.



BABESA MUKO jokalariek eta entrenatzailea aurrean, eta atzean, Arrasateko zaleak.

A.E.

ESKUBALOA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Euskadiko Ligan segitzeko aukera du oraindik Bergarak

Edu Orgazen taldeak Portugaleteri irabazi zion atzo; orain, igoera fasean Askartzak eta Barakaldok zer egingo zain egon beharko du

BERGARA

28-26

PORTUGALETE

Barakaldok igoera fasean zer lortuko zain egon beharko dute. Leioakoek edo Barakaldok lehen maila nazionalera igotzea lortuko balute, Bergarak Euskadiko Ligan jarraituko du hurrengo denboraldian. Maiatzera arte, igoera fasea amaitu arte, zain egon beharko du Bergarak.

AURRETIK PARTIDU OSOAN

Atzoko partidua txarra izan zen eta nerbioak izan ziren nagusi. Partidu erabakigarria zen etxekoan etorkizunerako, eta jokalariek igarri zuten hori. Hala ere,



AZKENA Ligako azken partiduan bi puntuak etxean geratu ziren.

J.A.

hasiera minutuetan salbu (0-2 eta 1-3), partidu osoan aurretik izan ziren markagailuan. Atsedenaldira 14-11ko emaitzarekin iritsi ziren. Bigarren zatian abantaila-

ri eutsi ahal izan zion Bergarak, arazorik gabe. Ruben Sanchez (6 gol) eta Aitor Aldanondo (5) izan ziren golegile nagusiak. Orain, itxoitera. Ez dago besterik.

PILOTA

Bergara Hiria: hirugarren jardunaldia bihar

E.M. > BERGARA

Bihar, martitzena, Bergara Hiria pilota txapelketako hirugarren jardunaldia jokatuko da Udal Pilotalekuan, 19:30ean. 22 urtez azpikoetan, Iturrioz-Merino eta Elezkano-Landaburu izango dira aurrez aurre. Landaburu elorriotarrak DV Txapelketa irabazi zuen iaz, promesa mailan, Urrutikoe-txearekin batera. Nagusien mailan, Renobalesek eta Arrastoak Gorka eta Gomez izango dituzte aurrean.

Dagoeneko, 22 urtez azpikoetan, Astibi-Olaldek eta Jau-narena-Bergera bikoteek eta nagusietan Beitia-Zabala eta Ollo-Linzoainek finalerdietarako txartela lortu dute.

KARATEA > SHOTOKANEKO 14. TXAPELKETA

Shotokan: harrobia lantzen Oñatin

Parte hartzaile eta ikusle ugari bildu ziren zapatuan Oñatin jokatu zen Shotokaneko 14. Txapelketan

MIREN ARREGI > OÑATI

Zapatuan 160 ume eta gaztetxo ibili ziren nor baino nor Oñatiko Zubikoa kiroldegian, han jokatu zen Shotokaneko 14. Txapelketan. Zortzi eta hamalau urte bitarteko karateka gazteek diziplina honetan lezio bikaina eman zuten, guztiek ere maila oso ona erakutsiz. Oñatiko Shotokan taldeak antolatutako topaketan, Antzuolako, Eibarko, Bergarako eta Oñatiko gaztetxoek hartu zuten parte. Debagoiena osotik joanak, Zubikoa kiroldegiko harmailetan bildu zen jendetzak urduri ipini zuen parte hartzaile bat baino gehiago, baina guztiek ere, urduritasuna eta oztopoak baztertuz, lan ona egin zuten.

Hiru kategoriatan lehiatu ziren; benjamin, alebin eta infantil mailetan hain justu. Kategoria bakoitzean lehian, bai mutilak eta baita neskek ere. "Geroz eta neska gehiagok egiten dute shotokana. Maila ona erakutsi dute eta gainera, mutilak baino finagoak dira lanean" azaldu du Josean Iñarrak, Bergarako Shotokan elkarteak irakaslea. Zozketaz erabaki zuten nork egin noren

kontra. Behin arerioak zehaztuta, bat gerriko urdinarekin eta beste gorriarekin, Katamira (lauki) gainean ipini eta bertan, banaka, karateko hainbat forma ongi egitean zegoen gakoa. Euskadiko Federazioko kideek osatutako epaimahaiak erabakitzen zuen bietatik zein pasatzen zen hurrengo fasera. Finalera iritsi ez zirenak, berriro lehiatu ziren euren artean, kategoria bakoitzeko hirugarren postua eskuratzeko. Antolatzaileak pozik gelditu ziren zapatuan gaztetxoek erakutsitako mailarekin eta baita Zubikoan sortu zen giro politarekin.

Sailkapena

NESKAK

1. Maddi Iñarra	Aurre-benjaminak
1. Ekhiñe Garcia	Benjaminak
1. Irati Rodriguez	Alebinak
1. Haizea Iñarra	Infantilak

MUTILAK

1. Dani de Lucas	Aurre-benjaminak
1. Iker Osinaga	Benjaminak
1. Joel Gomez	Alebinak
1. Xabier Iñurrieta	Infantilak



GAZTETXOAK Zapatuan 160 neska-mutiko batu ziren Oñatiko Zubikoa kiroldegian.

JOSETXO ARANTZABAL



HARROBIA Argazkian, mutiko bat, zapatuan Oñatin egindako Shotokan txapelketan.

JOSETXO ARANTZABAL

GIMNASIA ERRITMIKOA > ESKOLA ARTEKO B MAILAKO TXAPELKETA

Bergararrek maila ona erakutsi zuten eskola arteko gimnasia erritmikoko txapelketan

Ehun gimnastatik gora elkartu ziren zapatuan Labegarietan; bergararrek ongi bete zuten lana, sari andana eskuratuz

M.A > BERGARA

Ehun gimnastatik gora izan ziren zapatuan Bergarako Labegarieta kiroldegian, gimnasia erritmikoko Ariznoa elkarteak antolatutako eskola arteko B mailako txapelketan. Debagoieneko talde parte hartzaile bakarra zen Bergarako eta lan ona egin, eta emaitza onak lortu zituzten antolatzaileek adierazitakoaren arabera.

BERGARAREN LAN ONA

Alebinetan San Martingo neskek gelditu ziren lehen postuan, pilotarekin egindako erakustaldi txu-



TALDEKA Argazkian San Martingo taldea erakustaldian.

J.A

kun batekin. Kategoria horretan hirugarrenak izan ziren Mariaren Lagundiko neskek. Kadete mailan, Ariznoa elkarteak irten ziren garaile, mazoekin eta uztaiekin

egindako erakustaldian. Bakarkakoan, Jennifer Pineda bigarren gelditu zen eta Izaskun Fernandez berriz, bosgarren postuan, biek ere lan ona egin ondoren.



JOSETXO ARANTZABAL

Bergarak Urolari irabazi, azken minutuan

Bergarak 2 eta 1 irabazi zion zapatuan Urolari, Agorrosinen. Bi taldeak berdindurik zeuden sailkapenean, eta orain Bergarak hartu die aurrea zumarragarrei. Oier Loiolak (argazkian) sartu zuen lehenbiziko gola eta atsedaldiaren aurretik Urolak berdinketa lortu zuen. Luzapenean, Imanol Cabanillas ate aurrean bakar bakarrik geratu eta atezainak falta egin zion area ertzean. Epailak atezaina egotzi zuen eta ondorengo falta Cabanillasek berak sartu zuen, 2-1koa jarriz.

Rafa Carriet > Kenpo maisua

"Gizakiak defentsarako duen baliabide naturala da kenpoa"

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA

Eskoriatzan egiten den kenpo sistema entrenamendu estilo bezala onartu du Nazioarteko Arte Martzialen Eskolak (ISMA). Rafa Carriet maisua da Eskoriatzako eskolako buru eta harekin izan gara Eskoriatzan egiten den kenpo sistemaren gainean berbetan.

Zer da kenpoa?

Arte martziala da. Kenpoaren bitartez, defentsa pertsonala lantzen da.

Betiko kenpo estiloan gehien erabiltzen den borroka aukera hanka da. Baita, distantzia motzean egiten diren borrokek, lurrean; eta, beste aukera bat ere bada, tresnak erabiltzeko aukera; hau da, makilak eta bestelakoak. Guk erabiltzen dugun entrenamendu motan, aukera guztiak lantzen ditugu. Berezitasuna, entrenamendu mota ezberdinak direla da.

Zergatik da ezberdina Eskoriatzan egiten den kenpo sistema?

Ezberdintasunak entrenamendu motan daude. Nik 31 urte daramat arte martzialen munduan; hasi nintzenez, Arrasaten egiten zen kyokushinkai-a egiten hasi nintzen. Kyokushinkaia arte martzial mota gogorra da, baina, hala ere, hutsuneak ikusten nizkion. Hala, beste entrenamendu mota batzuk praktikatzeko hasi nintzen. Bai defentsa eta baita ere abilezia ezberdinak landu ditugu eta horrela, beste entrenamendu programa bat sortu dugu. Programa berri honek,

entrenamendu zabala hartzen du bere baitan; hau da, heltze tekniketarik hasi eta eraso teknikeraino.

Eta, zuen sistema onartu egin du nazioarteko eskolak.

Bai, abuztuan erakusketa bat egin genuen Feliciano Ferreiro *Kimo* maisuaren aurrean. Mintegi batean erakutsi behar izan genuen gure entrenamendu metodoa. Han, maisu talde bat zegoen eta haiek onartu zuten gure sistema entrenamendu estilo bezala.

Nazioarteko Arte Martzialen Eskolak (ISMA) bermatu eta onartu zigun gure entrenamendu saioa. Ez ginen bakarrik aurkeztu, Madrileko beste eskola bat ere gurekin izan zen.

Berezko sistema izateak zer esan gura du?

Honek esan gura du kenpoaren barruan gure sistema dugula. Euskal federazioaren barruan gaude, baina gure sistema daukagu. Hau da, federazioaren arauak betetzen ditugu baina gure entrenamendu sistema daukagu.

Zu zeu, noiz hasi zinen kenpoa praktikatzeko?

Lehen esan bezala, orain 31 urte hasi nintzen Arrasaten. Hasieratan karatea egiten nuen, baina, denborarekin, gauza berriak ikasteko grina sortu zitzaidan. Hortaz, beste arte martzial batzuk egiten hasi nintzen: judoa, kenpoa...

Kenpoa, arte martzial mota bat da, defentsa pertsonalaren alorrean etengabeko ikerkuntza daukana. Orain dela zazpi urte eskolak ematen hasi nintzen. Lehen beste irakasle bat zegoen eta haren ondoren nik hartu nuen Eskoriatzako eskolaren ardura. Egia esan, ez naiz bakarrik ibiltzen; talde polita sortu dugu.

Zelako taldea daukazu Eskoriatzan?

Gaur egun, ume mordoak etortzen da entrenamenduak egitera. Gehiengo umeak dira baina, nagusietan ere talde polita osatu dugu; guztira, 18 ibiltzen gara entrenamenduetan. Nagusiek, gainera, talde polita osatu dute; orain, adibidez, maiatzaren 24an txapelketa nazionalera aurkeztuko dira.

Noiz entrenatzen duzue?

Ohikoena, astean bi egunetan entrenatzea izaten da. Txikienek martitzenetan eta egunetan entrenatzen dute bi orduz. Nagusiek ere bi egunetan entrenatzen dute, 7:30etatik 9:00etara. Zapatu goizetan ere elkartzen gara entrenamenduak egiteko.



IRAKASLEAK Iker Letona, Rafa Carriet eta Iñaki Urkiola.

ESKORIATZAKO KENPO TALDEA

Defentsa pertsonala erakutsiko dute maiatzean

Maiatzaren 10ean eta 11n defentsa pertsonalerako ikastaroa egingo dute Eskoriatzako kenpo eskolakoek. Beste urte batzuetan ere egin izan duten bezala, gura duenarentzat zabalik dago deialdia. Helburua, defentsa pertsonala zer den ikastea eta behar bezala erabiltzea izango da. Oraindik ordutegia zehaztu ez duten arren, Rafa Carriet maisuak esan du ikastaroa Eskoriatzako pilotalekuan izango dela. Zapatuan eta domekan izango dira eskolak; eta, ibarreko jendeari zabaldua dago izen-ematea. Udalarekin harremanetan dabil Eskoriatzako elkarteak ikastaroa behar den bezala antolatuko. Hala, alde aurretik izena eman beharko du ikastaroan parte hartu gura duenak baina oraindik zehazteko dute nola eta non eman beharko den izena.

Zuk zeuk ze maila daukazu?

Nazioarteko maisu titulua daukat eta gerrikoaren kolorea beltza da. Gainera, azkeneko erakustaldi honetan, Eskoriatzako entrenamendu sistema onartua izan zenez, seigarren *dan* maila eskuratu nuen.

Bestalde, azpimarratu gura dut, gure taldean badela beste maisu bat: Iñaki Urkiola. Urkiola izan da urteetan Eskoriatzako eskolako motorra, berak eraman du aurrera eskola. Iker Letona,

"Lehiatzen hasi aurretik, gurago dut errespetua eta adiskidetasuna zer den irakastea"

"Beti, erasoaren neurriera erabiliko dugu defentsa; hau da, proportzionala"

elkarteko hirugarren entrenatzailea da.

Noiz da egokia txapelketetan parte hartzen hastea?

Txapelketetan, lehiakortasuna dagoenez, golpeak ematen eta hartzen dira. Baina, nik gurago dut txikiak ez lehiatzea. Gurago dut defentsa mota honen beste ezaugarri batzuk ikasi dezaten; eta, hori erakusketen bidez egiten dute. Gero, 14 urtetatik aurrera, txapelketetan parte hartzen dute. Orduan, lehiaketa zer den ikasten dute, baina, lehenago, gurago dut beste ezaugarri batzuk ikastea: besteak beste, errespetua eta adiskidetasuna.

Zer da beharrezkoa kirol honetan?

Ez da inolako ezaugarri berezirik behar kenpoa praktikatzeko. Gogoratu, hau kirola baino gehiago defentsa mota bat dela. Hortaz, entrenamenduak egiteko ez da ezaugarri fisiko berezirik

behar. Baina, asmoa txapelketetan parte hartzea bada; orduan, hainbat ezaugarri izatea beharrezkoa da. Adibidez, indarra aldeko ezaugarri bat da.

Azpimarratu gura dut, kenpoa entrenatzeko ez duela ez sexuak ez eta adinak inolako trabarik jartzen.

Hortaz, zure ustez kenpoa ez da kirola bakarrik.

Nire ustez, kirola baina gehiago, kenpoa defentsa pertsonala erabiltzeko metodo bat da. Gizakiak defentsarako duen baliabide natural bat da. Gertatzen dena da, gauza guztietan bezala, lehiakortasuna sartu dela tarteko; hala, txapelketak eta bestelako lehiaketak antolatzen hasi gara orain.

Baina, guk behin eta berriz azpimarratzen dugu, kenpoa defentsa pertsonala dela; eta, beti, erasoaren neurriera erabiliko dugu defentsa. Hau da, erantzunak proportzionala izan behar du.

OÑATI

"Galdu nahiz irabazi, guk primeran pasatzen dugu beti"

ZUBIKOA KIROLDEGIAN Hirugarren eta laugarren mailako neska-mutikoak saskiarekin saiatzen ibili ziren

ESKUBALOI PARTIDUAK Benjamin mailako gaztetxoak eskubaloian aritu ziren goizean goiz

GIROA HARMAILETAN Guraso eta lagunuen animuak kiroldegi osoa betetzen zuten

NEREA MENOR > OÑATI

Batzuk zapatu goiza lo egiteko erabiltzen duten bitartean, ibarreko umeek kirola egiteko arropa jantzi eta kiroldegira abiatzen dira.

Zapatuan Oñatiko gaztetxoekin egon ginen Zubikoa kiroldegian. 3. eta 4. mailako neska-mutikoak goiz-goizetik aritu ziren saskibaloian. Alebin mailakoek ostera, eskubaloiko partiduak jokatu zituzten. Gogo handiarekin sartu ziren guztiak kantxan eta baloiaren atzetik ibili ziren guztiak korrika. "Batzutan galdu egiten dugu eta beste batzuetan irabazi", esan ziguten neska-mutikoek, "baina, galdu nahiz irabazi, primeran pasatzen dugu beti". Eskola kiroletan aritzeak lagun berriak egiteko aukera ematen die, bertan parte hartzen baitute Elkar Hezi, Errekalde eta Txantxiku eskoletako neska-mutilek.

GIRO APARTA

Zapatu goizean, eguzkia eta eguraldi ona egon zen Oñatiko kaleetan zehar. Kiroldegi barruan ere, giro epela eta bikaina. Umeak noiz jokatzeko zain urduri zeuden pasilloetan eta jolasten zeudenak indar guztiarekin saiatzen ziren puntuak lortzen. Gurasoak adi-adi egon ziren gaztetxoei begira kiroldegiko harmailetatik, eta batzuk kantxatik bertatik animatzen zituzten, "Aupa, Saioa", "ondo, Desire", "sartu orain, Paula". Aulkian eserita zeuden umeak ere ez zieten begirik kentzen kideei; bazekiten hurrengo astean beraiek egongo zirela kantxan.



Jirafak. Nereak, Paulak, Nagorek, Iratik, Nagorek eta Desirek elkarrekin jardun zuten zapatuko ekintzetan.



Sugeak. Itziarrek, Saioak, Eiderrek, Soek, Nagorek, Aniak eta Guadalupek osatzen dute taldea.



Gladiadoreak. Mikel, Iñigo, Xabier, Aitor eta Pello goian. Behean Mikel, Aitor, Mikel, Jon eta Anje.



Errekalde. Oierrek, Jokinek, Anttonek, Mikelek, Iñigok, Beñatek, Danelek, Matiasek, Unaik eta Josuk talde berean jardun zuten.

ESKOLA KIROLA GUSTATZEN ZAIZUE?



Guadalupe Teixedo eta Saioa Varela
Errekalde



Ania Inurritegi eta Eider Fernandez
Txantxiku



Ander Otamendi eta Zakarias Akkouh
Errekalde

Saskibaloia partidua amaitu bezain pronto Guadalupe eta Saioa aurkitu genituen kantxan. "Zapatuetako kirolera etortzea asko gustatzen zaigu jolastera etortzen garelako. Hala ere, oporrak daudenean ez dugu eskola kirolik". Batek saskibaloia du gustukoan eta besteak futbola. "Lagun berri asko egiten ditugu partiduetan, Txantxiku eta Elkar Hezi eskoletakoak", kontatu ziguten.

"Asko gustatzen zaigu zapatuetako partiduak jokatzeko. Batzuetan jaikitzea kosta egiten zaigu, baina badakigu gero ondo pasako dugula. Galtzeak ez digu inporta, guk beti pasatzen dugu primeran, galdu nahiz irabazi. Futbolearen aritzea asko gustatzen zaigu, gure kirol gogokoena da". Horixe esan zuten Ania eta Eider gaztetxoek, zapatuko ekintzen gainean galdetu genienean.


Ander eta Zakarias aulkian eserita ikusi genituen. Astero ume ezberdinei tokatzen zaie bertan egotea, eta baten bat lesionatuz gero jokoan sartuko dira. Bi hauei ere asko gustatzen zaie kirola. "Oso ondo pasatzen dugu beti, asko gustatzen zaigu partiduetara etortzea". Eskubaloian aritzea da Anderri gehien gustatzen zaiona eta Zakariasek kirol guztiak gogoko dituela esan zigun.

Goienkaria **33.825** irakurle




GOIENKARIA: askogatik, irakurriena*


El Diario Vasco **17.765** irakurle




Gara **5.060** irakurle



Berria **2.310** irakurle




El Pais **1.430** irakurle



Marca **1.265** irakurle




Mundo Deportivo **715** irakurle



El Correo **605** irakurle



Deia **275** irakurle



- GOIENKARIA da Debagoiengan gehien irakurtzen den hedabidea.
- Bigarren hedabidea baino bi bider gehiago irakurtzen da.
- Debagoiendarren %60,5ek astero irakurtzen du GOIENKARIA.
- **Eskerrik asko, irakurle.**

*CIES-EK EMANDAKO DATUAK

Goienkaria



> **ANTZERKIA**
Txikiek 'Loratégian' antzezlanarekin gozatu zuten zapatuan, Amaia antzokian > 24



> **ELKARRIZKETA**
Jon Lazkano mendizale eta bidaia gidariarekin izan gara berbetan > 27



> **TELEBISTA**
Itziar Mujika, '2x2' erreportaje saioko kazetari idiazabaldarrari elkarrizketa > 29

Aho bete hortz utzi ditu Blakek Espaloia bete duten ikusleak

Ikusmin handia sortu du Blaken ikuskizun berriak, eta bi emanaldi egin behar izan ditu

Eskenatokira atera zituen ikusleei egoera sinestezinak biziarazi zizkien mentalistak

JOKIN BEREZIARTUA > ELGETA

Gure begiek ikusten dutena sinistu izan dugu beti. Edozelan ere, Anthony Blakek zapatuan eta atzo Espaloian emandako ikuskizunaren lekuko izan zena bere begiek ikusitakoa sinetsi ezinik joan zen etxera. *Ez da posible, nola egin du? edo nola demontre jakin du hori?* galdetzen zioten euren buruari ikusleek.

Mentalista famatuak, baina, saioaren amaieran esaldi bakar batekin erantzun zien galdera hauei guztiei: "Gaur ikusi duzuen oro zuten irudimenaren fruitu da. Ez iezaiozue buelta gehiagorik eman, ez du-eta zentzurik".

IKUSLEGOAREN PARTE HARTZEA

Zapatuko emanaldia ordu laurdeneko atzerapenarekin hasi bazen ere, itxaronaldiak merezi izan zuen. Blakek, 400 pertsona ingururen aurrean "egia bilatzeko galderak" deritzon atalarekin hasi zuen emankizuna.

Atal honetan, sei ikusle taularatu zituen eta horietatik pilota beltzaren jabe zena asmatu. Seiek pilota beltza zutela esateko agindua zuten, baina mentalista famatuak begietara begiratu egia esaten zuen bakarrarekin geratu zen Espaloia oholtzan. Eta hau saioaren hasiera baino ez zen izan. Ikus-

kizunak iraun zuen ordu eta erdian askorako eman zuen denbora. Hala, zenbait ikusleren bizitza pertsonaleko pasarteak publiko egin zituen, beste batzuen pisua eta altuera begirada bakar batez esan...

Denbora ere izan zuen hizpide artistak. "Gure oroitzapenen arteko espazioa" moduan definitu zuen denbora eta haur bi atera zituen taulara. Batak arbelan aleatorioki bi puntu markatuz ordua zehaztu zuen. Besteak, berriz, Blaken ordu-lariko orratzak jira eta bira izan zituen haurrak berak nahi izan zuen unean gelditu zituen

arte. Galdera: bi ordulariek ordu bera markatzen al zuten? Erantzuna: bietan seiak hamar gutxi.

HARRIGARRIENA AMAIERARAKO

Telepatia, iragarpenak eta bihozkadak zuzenenan bizitzeko aukera eman zuen Blakek asteburuan eskainitako emanaldietan. Amarrurik ikusgarriena, ordea, amaierarako utzi zuen. Ikuslegoko edonor izan zitezkeen bi pertsonen laguntza mahai bat alde batetik bestera eta goitik behera mugitzea lortu zuen, mahaia une batez ere ukitu gabe. Sinestezina.

ANTZERKIA > UMEEN LEHEN HARREMANA ANTZERKIAREKIN

Erabateko arrakasta izan zuen umeei zuzendutako 'Lorategian' antzezlanak

Obra berezia da, 1 eta 3 urte bitarteko umeei dago eta zuzenduta. Bi emanaldi egin behar izan zituzten, lehenengorako sarrerak agortu baitziren

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Umeak txundituta irten ziren ikuskizunetik. Antzerkiarekin izan zuten lehen harreman honek txikiak txintxo-txintxo izan ziren, isilik, ezagutzen ari ziren mundu berriari so. Ordu erdiz ezagutu zuten mundu berria gustatu zitzaizkien seinale.

Antzerki ikuskizuna arratsaldeko bostetan hasi zen. Emanaldi bakarra aurreikusitako zuten arren, ordubete beranduago beste emanaldi bat egin zuten, lehenengorako sarrerak aurretik agortu baitziren. Jakin beharra

dago, antzezlaneko ikuslegoa mugatua dela. Umeak eta euren gurasoak eskenatokian inprobisatutako harmaila baten esertzen dira, eta gehienez 90 pertsonentzako lekua dago.

UMEAK IKUSLE

Teatro Paraíso eta Belgikako Guimbarde antzerki taldeek elkarlanean zuzentzen duten *Lorategian* obrak umeei antzerkiaren mundua aurkeztea du helburu. Umeek ikuskizuna beste era batera ikusten dute, hau da, zentzumen guztiak eta bihotza

erabiltzen dute helarazi nahi zaizkien mezuak interpretatzeko. Jasotzen dituzten lehen sententziak horietatik eta momentuan laguntzen dizkien emozioetatik abiatuta, euren mundua eraikitzen dute.

Beraz, umeak mundua aztertzeko desio horretan, adierazpen artistiko guztien hasieran aurkitzen dira.

LORATEGIAN

Ordu erdi eskas irauten duen obra da *Lorategian*; ikusle mota zein den jakinda ulertzekoa da. Ikuskizunean irudikatu zuten lorategian, antzerkia, bideoak, marrazkiak eta itzalak nahastu zituzten. Helburua umeei esperientzia ikusgarri, jolasgarri eta aktiboa biziaraztea.



OPARIA Umeak tximeletak jasotzen, zapatuko lehen emanaldian.

J.A.

UMEEN IRITZIAK



Manex eta Kattalin Linazisoro

Kattalin eta Manex txundituta irten ziren antzezlanetik. Behin lotsa gauditu ostean, asko gustatu zitzaizela esan ziguten. Eskenatokian ikusitakotik "tximeletak, sagarrak eta loretxoak" izan ziren gehien gustatu zitzaizena.



Izaskun Goitia eta Malen Barrutia

Maleni ere asko gustatu zitzaion antzerkiarekin izandako lehen esperientzia. Tximeletak eta loreak izan ziren atentzioa gehien eman zioten elementuak. Bere amari, bestalde, antzerkia hain adin txikiendako izatea "kuriosoa" iruditu zitzaion.



Txomin Maidagan eta Maider Ruiz

Txominek ere gustuko izan zuen antzerkia. Antzezlanetik gehien gustatu zitzaiona erabakitzea nahikoa kosta arren, azkenean "tximeletak eta elefanteak" erantzun zuen. Amarentzat, berriz, motza izan arren, "kuriosoa eta erakargarria" iruditu zitzaion.



Alaitz Etxebarria eta Ekain Zugasti

Antzerkia gustatu zitzaiola adierazteko, Alaitzek goitik behera mugitzen zuen burua. Eskuan zeraman tximeleta seinaltzen zuen obratik gehien gustatu zitzaiona adierazteko. Ekaintzat, ordea, itsasoa izan zen antzezlanetik ikusgarriena.

Deluxe Jam Aretora hurbildu ziren jarraitzaileei emanaldi bikaina eskeini zien

Xoel Lopez galiziarrek zuzentzen du Deluxe. Xoel Deluxe eta Deluxe Xoel dela esan genezake, bera baita taldearen kantuak konposatzen dituena. Lopezen gitarra soinu eta ahotsari, Roberto Lozanoren perkusioa-Sex Museum taldeko bateriajolea ere bada-eta beti ondoan izan duen Juan de Dios Martinen gitarra akordeek emanaldi bikaina ematea ahalbidetu zuten. Noski, pop musikan hain erabiliak diren teklatu, saxo eta tronpetak ez ziren falta izan.

Reconstrucción disko berria aurkezten dabil Deluxe. Diskoak oso kritika onak jaso ditu.



JOSETXO ARANTZABAL

> ZINEMA


Film laburrak ikusgai aste honetan Arrasaten eta Bergaran

2007ko film labur onenak ikusgai izango dira aste honetan Arrasaten eta Bergaran. Film laburren V. zirkuituak Arrasaten egingo du geldialdia lehendabizi. Eguazten honetan izango da laburmetraien emanaldia, Kulturaten 19:30ean.

Hurrengo egunean Bergaran ikusi ahal izango dira filmak. Aroztegi aretoan da hitzordua 20:30ean.

Hamar istorio ezberdinekin gozatzeko aukera izango da, ordubete iraungo duen emankizunean. Euskarazko zinea bultzatzeko xedez, Topaguneak antolatzen duen bosgarren zirkuitua da.

Debagoieneko WEBGUNEAK



AHOLKULARITZAK

ASEGI
www.asegim.com
ESTRADÓS
www.consultoriaestrados.com
LIZKER
www.lizker.com

AKADEMIAK
BASTIDA
www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK
BZ SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas

ANTZINAKO ALTZARIAK
ZUMADIA
www.zumadia.com

ARETOAK
360 ARETOA
www.360aretoa.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK
MARIA JESUS
www.mjargazki.com

AROTZTEGIAK
ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi
AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate
UGARTE
www.goiena.net/blogak/ugartearotza

ARKITEKTURA ESTUDIOA
BIARK
www.goiena.net/blogak/biark

ARRANDEGIAK
ITSAS EDER
www.goiena.net/blogak/itxaseder

ASEGURUAK
AXA ASEGURUAK
www.axawinterthur.es
BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
LAGÜN ARO
www.seguroslagunaro.com

AUTO – KONTZESIONARIOAK
4QUATTRO4
www.4quattro4.com

BITXITEGI TAILERRA
OSKAR VITORIA
www.oskarvitoria.com

EGUZKI OIHALAK
TOLDOS LETE
www.toldoslete.com

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK
ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi
GORLA
www.goiena.net/blogak/gorla

ELEKTRIZITATE MATERIALAK
SETALDE
www.setalde.com

ELKARTEAK
EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL
FEDERAZIOA
www.goiena.net/blogak/ehmff

ERAIKUNTZAK
CONSTRULAN
www.construlansl.com

ERROTULOAK
PANDO
www.goiena.net/blogak/pando
ROTUDENAK
www.rotudenak.com

ESKULANAK
IZEDER
www.goiena.net/blogak/izeder

ESTETIKA ZENTROAK
ANGELA
www.angelaestetika.net
GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder
KIZKUR
www.kizkur.com
LILURA
www.goiena.net/blogak/lilura

FISIOTERAPIA ZENTROA
EKIN
www.goiena.net/blogak/ekin

FORMAZIOA
LEGE SOZIOLOGIA INSTITUTUA
www.iisj.es

GARAJEAK / KONPONKETA
AMG AUTOAK
www.amgautoak.com
AUTOS ARETXA
www.autosaretxa.com
GALLASTEGI MOTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi
JC RACING
www.goiena.net/blogak/jcracing

GARBIKETAK
HEMEN
www.hemen-garbiaketak.com
DENETIK GARBITASUN
MEKANIZATUA
www.goiena.net/blogak/denetik

GIMNASIOAK
IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport
ZAINDUZ
www.goiena.net/blogak/zainduz

GOZOGINTZA EKOLOGIKOA
ETA INTEGRALA
GALGORRI
www.goiena.net/blogak/galgorri

HARATEGIA
LANDALUZE
www.goiena.net/blogak/galgorri

HAUR PARKEAK
OKIPARK S.L
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETAK
URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIKAK
MONDRAGON LINGUA
www.mondragonlingua.com
LA PUERTA AL INGLES
www.goiena.net/blogak/puerta-ingles

HOTELAK
HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

IKASTETXEA
ARETXABALETA INSTITUTUA
www.iaretxabaleta.com
ARIZMENDI IKASTOLA
www.arizmendi.ikastola.net
ELKAR-HEZI IKASTETXEA
www.elkarhezi.com
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
www.mondragon.edu

ILE-APAINDEGIAK
IRUDI
www.comercialerrekabarren.com
RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier
KIZKUR
www.kizkur.com

INDUSTRIA HORNIDURAK
SUMINISTROS UGARTE
www.suministrosugarte.com

INFORMATIKA
DCA COMPANY
www.dcacompany.com
ARITU
www.aritu.com

INGENIARI GEOLOGIKOA
HARRILUR
www.harrilur.com

INMOBILIARIAK
KOROSTI
www.inmokorosti.com

INPRIMATEGIA
EGUZKIGRAF
www.goiena.net/blogak/eguzkigraf

ITURGINTZA ETA BEROGINTZA
URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta
URKO MANTENIMIENTO, S.L.
www.goiena.net/blogak/urko

JANARIAK
ERREKABARREN FRUTADENDA
www.comercialerrekabarren.com
GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu
ARANTXA PRODUKTU FRESKOAK
www.goiena.net/blogak/arantxa

JANTZI DENDAK
MARKIEGI
www.goiena.net/blogak/markiegi
UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEA
BASTER ALDE
www.baster-aldejatetxea.com
DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena
GOIKO BENTA
www.goikobenta.com
MAULANDA MERENDERUE
www.goiena.net/blogak/maulanda
IXAUN
www.goiena.net/blogak/ixaun
OTZETA
www.goiena.net/blogak/otzeta

TABERNA BERRI
www.goiena.net/blogak/tabernaberi
ZUMELAGA
www.zumelaga.com

KIROL DENDAK
LAINO. SKATE & SNOW
www.laino.info

KONGRESU ETA BILKURAK
GANDIAGA TOPAGUNEA
www.gandiagatopagunea.com

LANDETXEAK
ARTEAGA
www.artegalandetxea.com
ATERBE
www.aterbe.com
LAMAÑO-ETXEBERRI
www.goiena.net/blogak/lamaino-etxeberrri
UXARTE
www.uxarte.net

LANTEGI ETA TAILERRAK
BATUAK S.A.
www.batuak.com
GAURKO, S.A.U.
www.gaurkosa.com
LINEAS LASA
www.lasa.es
MIRVAT
www.mirvat.com
PERFIPAR
www.goiena.net/blogak/perfipar
TALLERES CARPINS S.L.
www.carpinsa.com
SEIN BATU, S.L.
www.sein.es

LEIHOAK
ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
EGO
www.goiena.net/blogak/ego
ION LEHIOAK
www.puertasyventanas-ion.com

LORADENDAK
EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore
KLOROFILA
www.klorofila.com
LORELAN
www.goiena.net/blogak/lorelan
MAYTE
www.goiena.net/blogak/mayte

MERTZERIAK
LEINTZ KINKILADENDA
www.comercialerrekabarren.com

OINETAKOAK
KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta
MARI KARMEN
www.comercialerrekabarren.com

OKINDEGIAK
AIASTUI
www.goiena.net/blogak/aiastui
BEROGI
www.goiena.net/blogak/berogi
OGIZUN
www.goiena.net/blogak/ogizun

OPARIAK
MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multipticas
INSTITUTO OPTICO
www.goiena.net/blogak/optico

OSTALARITZA
GARAIA OSTALARITZA
HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia

PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA
FORMAK
www.formak.net
IPAR PROJECT
www.iparproject.com

PUBLIZITATE AGENTZIAK
AKORT-PUBLICIDAD
www.akort-publicidad.com

SUKALDERAKO ALTZARIAK
BOLU
www.goiena.net/blogak/bolusukaldeak

TABERNAK
EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea
HAMAİKA... TABERNA
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
ZIRIPOT
www.goiena.net/blogak/ziripot

TATUAJEAK
GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganesha

TAXIAK
GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK
GAZTEEN INFORMAZIOA
BULEGOA
www.aizue.com
ARRASATEKO EUSKARA
BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA
www.goiena.net/blogak/aebpn

UMEENDAKO ARROPA
HAURTXXOA
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

ZERAMIKAK ETA BAINUAK
URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta
GELATZU
www.gelatzu.com

ZERBITZU DIGITALAK
ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILAK
ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde



Saioen emanaldiak GOITBn



NOIZ > Apirilaren 15ean. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Arantzazu Jauregiatzo eta Maria Baltzategi.
HERRIA > Oñati. **ADINA** > 8 eta 9 urte. **ABESTIA** > *Sarri, sarri.*



NOIZ > Apirilaren 15ean. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Ainize Arrazola, Ane Irigoien eta Olatz Bala-dron. **HERRIA** > Oñati. **ADINA** > 10 urte.
ABESTIA > *Atalaia.*



NOIZ > Apirilaren 15ean. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > June Ugarte eta Leire Zelaia. **HERRIA** > Oñati.
ADINA > 9 eta 10 urte. **ABESTIA** > *Nere herri.*



NOIZ > Apirilaren 15ean. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Leire Ariztimuño, Lide Fernandez eta Sophia Morales. **HERRIA** > Oñati. **ADINA** > 9 urte.
ABESTIA > *Itxaropena.*



NOIZ > Apirilaren 15ean. **ORDUA** > 20:15ean.
PARTE-HARTZAILEA > Aitor Urrestarazu. **HERRIA** > Oñati.
ADINA > 10 urte. **ABESTIA** > *Iñaki.*



NOIZ > Apirilaren 17an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Irati Aperribai, Maddi Alberdi eta Sara Alvarez.
HERRIA > Aretxabaleta. **ADINA** > 9 urte.
ABESTIA > *Amets bat.*



NOIZ > Apirilaren 17an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Ander Beitialarringoitia eta Josu Abanzabalegi.
HERRIA > Eskoriatza. **ADINA** > 8 urte.
ABESTIA > *Katuen testamentue.*



NOIZ > Apirilaren 17an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Josu Irure eta Xabier Toledo. **HERRIA** > Aretxa-baleta. **ADINA** > 9 urte. **ABESTIA** > *Lau teilatu.*



NOIZ > Apirilaren 17an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Ainhoa Gonzalez, Irati Iglesias, Maider Bastardo eta Maite Aizpurua. **HERRIA** > Eskoriatza. **ADINA** > 10 eta 11 urte. **ABESTIA** > *Nirekin.*



NOIZ > Apirilaren 17an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Ander Lopez, Jokin Altuna eta Unai Lopez.
HERRIA > Aretxabaleta. **ADINA** > 9 urte.
ABESTIA > *Aitormena.*



NOIZ > Apirilaren 17an. **ORDUA** > 20:15ean.
TALDEA > Sara Agiriano, Ainhoa Gallastegi, Maialen Gallastegi eta Alazne Miguelez. **HERRIA** > Eskoriatza.
ABESTIA > *Festarik festa.*

ASTE BUKAERA...

Jon Lazkanorekin



SAHARAN Argazkian Jon Lazkano (lehen ezkerretik) Saharako basamortura, gida modura, egindako bidaia baten.

BANOA

"Mendia da nire ardatza astelehenetik egubakoitzera eta aste bukaeratan"

Zortzi mila metroko mendietan ibili da Jon Lazkano urte askotan, besteak beste, Iñurrategi anaiekin

2002. urtean espedizioak utzi zituenetik, Banoa agentzian egiten du lan gida moduan

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Jon Lazkanorekin (Bergara, 1969) berba egiterakoan behin eta berriz errepikatzen du mendia hitza. "Mendiak bizitza ematen dit, eta nire ardatz nagusia da, astelehenetik egubakoitzera eta aste bukaeratan", diosku.

Himalayara 2002. urtean egindako irteeraren ondoren erabaki zuen espedizioak alde batera uztea. "Nire burua ez nuen ondo ikusten, ez nengoen sasoi onenean. Halakoetan, buruak buelta asko ematen ditu. Gertuko lagunen istripuak eta heriotzak bizi izan nituen. Horregatik guztiagatik, bat batean, ordura arte ikusi ez nituen arriskuak ikusten hasi nintzen", azaldu digu. "Mendia uzteko erabakia eboluzio bat izan zen. Psikologikoko oso indartsu egon behar duzue guk egiten genituen espedizioetan parte hartzeko".

HERIOTZA GERTUTIK

Dena den, heriotza gertutik ikusi duen arren, besteak beste, Himalayara, Annapurnara eta Dhaulagirira egindako espedizioetan lagun asko egin dituela esan digu: "Tratu zuzena izan

dut Felix eta Alberto Iñurrategirekin, Juanjo San Sebastianekin eta Jose Carlos Tamayorekin. Orain ez ditugu irteerak batera egiten, baina lagunak gara oraindik".

Jon Lazkanorekin batera ibili zirenak oraindik mendian jarraitzen duten arren, ez da damutzen 2002. urtean hartutako erabakiaz: "Batzutan inbidia izaten dut lagunek egiten dituz-

ten espedizioekin. Dena den, ez dut nire burua berriro mendi garaietan ikusten. Entrenamendu gogorak eginez gero, fisikoki presta zaitezke, baina, burua mentalizatzea zailagoa izaten da beti".

Oroitzapen onak ditu haitz-escaladan egindako urteetaz. "Niri batez ere Himalayan haitz-escalada egitea gustatzen zait. Zortzi mila metroko mendietara

joan naizenean, lagunek tiratuta joan naiz", gogoratu digu Jon Lazkanok.

Erabakia hartu zuenetik mendia beste modu batera ikusten du. "Orain egun bateko edo aste bukaerako irteerak egiten ditut mendira", dio. Bergarara oso gutxitan etortzen dela esan digu, baina etortzen denean Urbiara eta Aizkorrira joatea gustatzen zaio.

ORAIN, BULEGOKO LANA

Bilbon bizi da Jon Lazkano, eta Banoa bidaia agentziak duen bulegoan ematen ditu astelehenetik egubakoitzera arteko orduak. "Menditik bulegora egin nuen salto. Banoa 1991. urtean hasi nintzen lanean gida modura, orain aldiz, bulego lanak egiten ditut gehiago", esan digu.

Herrialde berezi eta bitxieta antolatzen ditu bidaiak Banoa agentziak, besteak beste trekigak eta basamortuetara bidaiak. Bulego lana egiten duenetik heriotza gertutik bizi izan zuen Mikel Essery eta Maddi Alvarezen heriotzekin. "Yemenen izandako atentatuak zur eta lur utzi gintuen. Gogorra izan zen bi lan-kideen heriotza".

"Pakistanera 15 bidaia egin ditut, eta aldi bakoitzean gauza berriak ikusten ditut"

Banoa bidaia agentziak ez du moda jarraitzen bidaiek antolatzerako orduan. "Gure irizpideen arabera antolatzen ditugu bidaiek, eta guregana bidaiari espezialduak etortzen dira", esan digu. Bidaiari talde batzuk gainera urtero egiten dituzte bidaiak Banoa agentziarekin.

Haitz-escalada egiten zuen garaitik, eta gida lanetan dabilenetik herrialde asko ezagutu ditu. Baina, gehien Pakistan gustatzen zaio: "15 bidaia egin ditut Pakistanera, eta beti ezagutu dut zerbait berria. Oso ederrak dira natura eta hango bizilagunak. Bestalde, ibaiak eta mendiak oso handiak dira, eta baita, glaziarrak ere. Horregatik guztiagatik, pena merezi du Pakistanera joatea". Oporrak prestatzen daudenendako beste aholku bat eman digu Jon Lazkanok: "Argelia hegoaldean dagoen Sahara basamortua ikaragarria da. Natura maite duen edonork ezagutu beharreko tokia da, duda barik".

gazte zerbitzuak

UDALEKUAK

> **Udatxoko.** Udarako antolatuta dauden udaleku, auzolandegi eta bes-telako ekintza guztiak bildu ditugu www.gipuzkoagazteria.net/uda web-gunean eta berauetan begirale bezala lan egiteko deialdiak ere bai.

LEHIAKETA

> **“Gomendatzen dizut: merezi du!”**
2008. Gipuzkoako hainbat Arrasate eta Bergarako Gazte Informazio Bulegoek parte hartzen dute, Gipuzkoako beste bulego batzuekin batera. Informazio gehiago www.aizue.com blogean. Epea: irailaren 30a.

> **Musika maketak.** Lasarte-Oriako Udala. Lasarte-Oriako 1. Musika Make-ten Lehiaketa. Epea: apirilaren 30a.

LANA

> **Begiraleak.** Begirale izateko hainbat lan eskaintza bildu ditugu Uda-Txoko web orrian. Eskintzak ikusteko www.gipuzkoagazteria.net/uda

> **Udaltzaina.** Oñatiko Udala. Oñatiko Udalean udaltzain-lanpostu bat betetzeko oposizioa. Epea: apirilaren 16a.

> **Nekazaritza, auzo eta ingurumeneko teknikaria.** Oñatiko Udalean Nekazaritza, Auzo eta Ingurumeneko Teknikari lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: apirilaren 16a.

BEKAK

> **Britania Handia.** La Caixa Fundazioa. Lizentziatu eta goi-mailako tituludunentzako 20 beka, Britainia Handiko unibertsitate eta goi-mailako irakaskuntza-zentroetan graduondoko ikasketak egiteko. Epea: ekainaren 13a.

> **Koldo Mitxelena.** Errenteriako Udala. Euskal kulturari buruzko ikerketa egiteko beka. Banakakoei edo helburu horrekin sortutako taldeei zuzenduta. Epea: apirilak 18.

1/ ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Urtebeteko umea daukan bikote batek etxea errentan hartuko luke. Deitu ezazu telefono honetara: 610 67 12 22.

Bergara. Etxea errentan hartuko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 652 70 39 95.

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Deitu ezazu telefono honetara: 686 99 59 41.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 664 38 49 76.

Bergara. Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan Bergaran. Deitu ezazu telefono honetara: 650 62 12 94 edo 685 70 76 25.

Oñati. Etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. Oñati lanean dabilen neska bat naiz. Deitu ezazu telefono honetara: 655 72 27 61.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Lanean hasi berri naiz eta bertan edo inguruan bereziki Arrasaten; logela alokatu nahi nuke. Hasiera baten, urtebetetako. Deitu ezazu telefono honetara: 653 74 28 83.

Gasteiz. Neska bat behar dugu Gorbea kalean etxea osatzeko, maiatzetik aurrera. 300 euro gehi gastuak. Deitu ezazu telefono honetara: 652 72 18 87.

106. BESTELAKOAK

Gela alokatzen da. Gela alokatzen da Arrasaten sukaldaria erabiltzeko aukerarekin. 2008ko apiriletik 2008 Irailaren hasiera arte. Etxea oso ondo dago. Deitu ezazu telefono honetara: 630 71 35 83.

3/ LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Bergara eta Arrasate. Jardunean dagoen taberna bat alokatu nahi nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 697 20 78 24.

Bergara. Taberna bat errentan hartuko nuke. Jantzita egon behar du. Deitu ezazu telefono honetara: 661 06 07 23.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Deitu ezazu telefono honetara: 652 75 79 71.

402. ESKAERA

Aretxabaleta edo Arrasaten garbiketa lanak egingo nitzuke. Deitu ezazu telefono honetara: 646 50 83 59.

Aretxabaleta. Emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. Mari. 943 53 33 92.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 05
sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net-en

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:

- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU.

GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEN GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).
GOIENKARIA-N + ASTELEHENEN GOIENKARIA-N 25 € (BEZ BARNE).

PROFESIOALEN IRAGARKIAK (MODULO)

MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEN GOIENKARIA-N 22 € (BEZ BARNE).
GOIENKARIA-N + ASTELEHENEN GOIENKARIA-N 30 € (BEZ BARNE).

OHARRA: BI MODULU BAINO GEHIAGO JARTZEKO DEITU 943 25 05 05 TELEFONORA.

Iragarki partikular zein profesioalean astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OÑATI

Laster zabalduko den Orange dendarako komertziala behar da.
615 05 03 34

egun osoz edo gauzez. Deitu ezazu telefono honetara: 678 80 96 01.

Debagoiena. Arratsalde edo asteburuetan pertsona nagusiak zaindu edo tabernetan lan egiteko gertu nago. 666 21 88 95.

Debagoiena. Ekuadorreko emakume arduratsua etxeko lanak egiteko gertu. Etxean bertan lo egiteko prest. Paperak ditut. 688 68 06 96.

Debagoiena. Emakume bat gertu nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak orduka egiteko. 669 68 38 36.

Debagoiena. Emakume esperientziaduna gertu umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

Debagoiena. Garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko nitzuke. 661 06 07 23.

Debagoiena. Geriatria laguntzaila titulua duen neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, eta garbitasun lanak egiteko. Nagore. 615 76 30 62.

Debagoiena. Haur Hezkuntza ikasten ari den neska eskaintzen da arratsaldez haurrak zaintzeko. 15:00etatik aurrera lan egiteko prest. Interesatuok Leiregatik galdetu. Telefonoa: 699 74 98 13.

Debagoiena. Lan egiteko gogo handia duen mutila edozein lan egiteko gertu. Arkaitz. 622 81 53 31.

Debagoiena. Lan egiteko gogo

handia duen mutila edozein lanetarako prest. Aaron. 622 84 08 86.

Debagoiena. Lantegian edota makinak garbitzen lan egingo nuke. Baita sukaldari lanetan ere. Esperientziaduna. 656 66 49 75.

Debagoiena. Mutil arduratsua atarietako garbitasun lanak egiteko gertu. Lan txukuna eta profesionala bermatzen du. Deitu ezazu telefono honetara: 696 38 10 07 edo 649 63 23 24.

Debagoiena. Neska gertu haurrak zaindu edo tabernetan lan egiteko. Esperientzia eta lan egiteko gogo. Magisteritza ikasten ari naiz. Deitu ezazu telefono honetara: 669 61 97 71.

Oñati. Emakume arduratsua eta esperientziaduna lanerako gertu. Etxeak, elkartek... garbituko nitzuke. Deitu ezazu telefono honetara: 635 71 12 88.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Batxilergoko matematikako eskola partikularrak hartu gura ditut. Deitu ezazu telefono honetara: 645 72 25 24.

Ingelesko eskola partikularrak hartuko nitzuke Bergaran. Deitu ezazu telefono honetara: 600 08 27 89.

502. EMAN

Arrasate. Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa eta DBH. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. Deitu ezazu telefono honetara: 630 71 35 83.

Debagoiena. Mutila matematikako eskolak emateko gertu. Mai-

la guztiak. Lehen Hezkuntzatik hasi eta unibertsitatearaino. Baita ere urritasunak dituzten ikasleei. Deitu ezazu telefono honetara: 696 38 10 07.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Ford Sierra 2.0i gt atzeko trakzioa Ford Sierra 2.0i gt saltzen dut. Atrakeo trakzioa 133(cv) 90(kw). Zuria, egoera onean eta ITV 12/2008 arte. 1500€. 615 78 51 01.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Txakurkumeak. Golden Retriever txakurkumeak salgai. 300 euro. 677 05 39 06.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Autoan umeak eramateko segurtasun aukia salgai. 656 78 64 64.

Bizikleta berria salgai. Erabili gabea. Parrila eta saskia dauka. Deitu ezazu telefono honetara: 655 74 48 85.

Epiphone SG gitarra elektriko salgai, maleta gogorarekin, afinagailuarekin eta Marshall aplikadorearekin. Dena 250 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 692 13 48 56.

Erlojua. Festina markako emakumeentzako urrezko erlojua eta esku-kronometroa salgai. Berriak. Dena 400 euroan. Nereagatik galdetu. 943 79 68 18.

Gitarra aplikadorea salgai. Hughes & Kettner Vortex Snack.

80 w RMS. Gutxi erabilia. Deitu ezazu telefono honetara: 665 75 12 32.

Ileko plantxak salgai. Gama Ceramic Ion Technology. Egoera onean. 50 eurotan. 645 72 58 41.

Jaunartzea egiteko marradun alkandora eta jaka urdin iluna salgai. 656 78 64 64.

Olympus E-410 argazki kamera digitala saltzen dut. ED-14-42mm eta 40-150mm objektiboein. Bateria eta kargadorea. USB eta bideo kableak. Olympus Master 2 Software cd-roma. Instrukzioak eta garantia txartela. Erabili gabe dago. 650€. Deitu ezazu telefono honetara: 660 80 09 71.

PSP Slim bideojoko berria salgai. 8Gb-eko memoria eta eramateko poltsarekin. 250 Euro. Deitu ezazu telefono honetara: 665 74 91 28.

Teleskopioa daukat salgai. Astroloni markakoa. 402 potentzia. Deitu ezazu telefono honetara: 656 78 64 64.

Txakurkumeak. Ispanier arrazako txakurkumeak salgai. Deitu ezazu telefono honetara: 664 46 06 45.

Zigiluak. 36 urtean bildutako Espainiako posta-zigiluak salgai. 1965etik 2000ra, biak barne. Denak berriak dira. Deitu ezazu telefono honetara: 657 10 90 78.

802. EROSI

Lursaila. Autokarabana bertan uzteko lursaila edo kanpinetako partzela erosiko nuke. Telefonoa: 600 08 27 89.

806. GALDU

Betaurreko graduatuak galdu nituen martxoaren erdialdean Arrasateko Uribe auzoan. Estutxe baten barruan. Telefonoa: 943 77 08 19.

Betaurrekoak galdu nituen Martxoaren 29an Arrasaten. Pastarik ez dute eta oso arinak dira, ez dute ezer pisatzen. Deitu ezazu telefono honetara: 659 36 88 75.

Erlojua galdu dut Loramendi Kiroiak eta Super BM artean. Aurkitu baduzu deitu, mesedez. Deitu ezazu telefono honetara: 630 75 44 19.

Umeen betaurrekoak galdu ditut Arrasaten. Norbaitek aurkitu baditu dei dezala, mesedez. Deitu ezazu telefono honetara: 658 73 91 07.

807. AURKITU

Paparreako. Bergarako Arte-kale kalean urre koloreko paparrekoak aurkitu dute. Paparrekoak erdian harri zuri bat dauka. Deitu ezazu telefono honetara: 943 76 13 86.

808. BESTELAKOAK

Arrasate eta Iruñea arteko joan-etorria egiteko, autoa eta gastuak elkarren artean ordaintzeko jende bila nabil. Igangetan joan eta ostiraletan etortzen naiz. Deitu ezazu telefono honetara: 635 75 94 57.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Bileri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

ASTELEHENEN GOIENKARIA

Harpidedunen
txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, apirilak 7, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaudе, zorionak!

ASTELEHENEN GOIENKARIAko harpidedun bazara, adi:

Zeuren izen zaitzake hurrengo zozketako irabazleetako bat!

Saridunak

Euskal selekzioko 2 txubaskero
- JOXEAN LAKUNTZA (Arrasate)
- MIREN PAGOAGA AMOZARRAIN (Oñati)

Euskal selekzioko 2 kamiseta
- SERGIO URIARTE RUIZ DE EGINO (Aretxabaleta)
- MIKEL MANTXOLA IDIGORAS (Oñati)

Harpidedun ez bazara...

Harpidedun egiteko:

943 08 10 50
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:

38 euro
2008ko urteko kuota

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

astea GOITBn

Astelehena, 14




> Arabako Bertsolari Txapelketa 21:47

Apirilaren 5ean Gasteizko Principal aretoan jokatu zen Arabako Bertsolari Txapelketako finala emango dute gaur 21:47an, Julen Iriondok ekoiztuta.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea-Ttipi TTapia.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Ilunpean.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Berbaire.
- 16:15 Berbaire.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Marrazkiak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ikusten.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Animalia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunako.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Erreportajea.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Harmailatik.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 28 Klipa.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 15



> 'Euskaldunak hizketan' saioan, erlijioa 22:15

Ane Irazabalek aurkeztutako *Euskaldunak hizketan* saioan, erlijioaz ari tuko dira. Gure aitona-amonek nola bizi zuten Aste Santua, Sakramentua...

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Horry.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Harmailatik.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Kirolari.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Horry.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 28 Klipa.
- 18:15 Musikantoi.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak: Horry.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Kantari.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Berbaire.
- 22:15 Euskaldunok hizketan.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ikusmira.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 Erreportajea.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 16



> 'Animaliak' saioa eskainiko dute arratsaldean 17:15

Animalien mundura hurbilduko gaitu Goiena Telebistak, Goierri Telebistak ekoiztutako eta Iñaki Leturiak zuzentzen duen saioak.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Kantari.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Berbaire.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Euskaldunok hizketan.
- 16:15 Teknopolis.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Calimero.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Animalia.
- 18:15 Harmailatik.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazki bizidunak.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Zaharrak berri.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Ikusten.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Euskal artzainak.
- 22:15 Ur eta lur.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Teknopolis.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Jazzmina.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 17



> Berri Txarrak kontzertuan 'Musikantoi' saioa 22:15

Berri Txarrak talde nafarrak Gernikako Astra Gazte-txean iaz eskainitako kontzertua eskainiko dute eguenean Musikantoi saioan. 22:15ean izango da.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zaharrak berri.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Marrazki bizidunak.
- 14:15 Euskal artzainak.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Ikusmira.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ur eta lur.
- 16:17 Eltze beroa.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Horry.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Kirolari.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazkiak.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Kantari.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Erreportajea.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Berbaire.
- 22:15 Musikantoi.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ikusten.
- 22:45 Gaurkoak.
- 23:30 Teknopolis.
- 00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 18



> Ilunpean Ken 7 taldeko Eñaut Elorrietarekin, gaur 22:15

Ken 7 taldeko abeslaria da Eñaut Elorrieta gernikarra. Ogibidez irakaslea bada ere, aspaldian musikari eskaintzen dio denbora gehiena.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Kantari.
- 14:15 Euskaldunok hizketan.
- 14:45 Albiste aurrapena.
- 15:15 Berbaire.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ur eta lur.
- 16:15 Musikantoi.
- 16:45 Albisteak.
- 17:15 Marrazki bizidunak.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Erreportajea.
- 18:45 Albisteak.
- 19:15 Ikusmira.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Erreportajea.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Berbaire.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Musikantoi.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:30 28 Klip.
- 00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrati

FM 107.7

> Joserra Senperena eta Víctor Aneirosen cd-ak zozketan 10:30

Dakizuen moduan Arrasate Irratiak aste-oro izaten du zeozer zozketatzeko entzuleen artean. Aste honetan, bada, Víctor Aneiros eta Joserra Senperena musikarien diskoak zozketatuko dituzte. Badakizue, deitu!

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Xabier Silveira bertsolaria, *Ilunpean* saioan; Oihuka diskoetxeko sortzaile izandako Ritxi Aizpuru; *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepaso
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com, goiena.net*))
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

gertutik



Itziar Mujika
Kazetaria

"Nazioarteko albisteak jorratzea asko gustatuko litzaidake"

MIREN ARREGI > ARRASATE

Idiazabalgoa da Itziar Mujika, 22 urteko gaztea. Leioan egin ditu kazetaritza ikasketak, baina unibertsitatera joan aurretik ere hasia zen alor horretan eskua sartzen. Hain zuzen ere, lehen idatziak argitaratu zituen 15 urte zituela. Debagoienean ezaguna da, 28 Kanalak ekoiztu eta GOITBn eskaintzen duten 2x2 delako erreportaje saioko aurkezlea delako.

Sortu berri den telebista kate batean lan egiteak zein eragozpen ditu?

Telebista bat hutsetik sortzeak lan eta sakrifizio handiak eskatzen ditu, baina aldi berean oso esperientzia polita eta aberasgarria da. Jende asko ezagutzen duzu, ofizioaren barrunbeetan sartzen zara, genero guztiak lantzen dituzu... Alde txarrak? Gehiegi ez. Hasieran inork ez du komunikabide berria ezagutzen eta horrek ez du zure alde egiten.

Gazte hasi zinen komunikabideetan lanean...

Hamabost urte nituela hasi nintzen, herriko kronikak idazten. Geroa Zirika Irratian, Goierri Telebistan, Aldaize aldizkarian aritu naiz eta Berrian ere praktikak egin nituen. Orain Tolosan nago, 28 Kanalean. Txikitatik nuen argi kazetari izan nahi nuela, eta oraindik ere berdin pentsatzen jarraitzen dut, nahiz eta orain ez dudan ofizioa horrenbeste idealizatzen.

Idiazabalgoa zara. Herri edo hiri handiak ez duen zer du herri txikiak?

Dena! Idiazabal herri txikia da, azken urteotan asko hazi den arren. Hiri handiek eskaintzen ez duten gertutasun hori eskaintzen du, eta batez ere, laguntasuna. Harremanak 'berogoa' dira herri txikietan handietan baino, gertukoagoak. Baina, noski, hiriek ere badituzte herri txikiak ez dituzten hamaika ezaugarri polit.

Egunen batetan lantzea gustatuko litzazukeen telebista formato bat?

Nazioarteko gaiak asko jarraitzen ditut txikitatik. Betidanik izan dut horiek lantzeko gogo. Berrian lantzen nituen nazioarteko albisteak *Mundua* sailean. Egunen batean berriro ere nazioarteari begira lan egitea gustatuko litzaidake.

asteko hitzorduak

Ikus-entzunezkoa



ARRASATE

> Bidaiekin gainera diapositiba emanaldiak antolatu ditu Zahar Berrik

Gasteizko Lontxo etorriko da Arrasatera diapositiba emanaldiak egitera, eguenean: *Bost kontinentetan* delakoa, 10:30ean, eta *Europa eta Afrika*, 18:00etan. Bi emanaldiok Kulturaren izango dira.

Zinema



BERGARA

> Zinema eta literatura jardunaldiak gaztetxean, domekero

Gaztetxeak zinemaren eta literaturaren arteko harremanak aztertzeko zikloa antolatu du. Domekan, hilaren 20an, *Persepolis* ikusteko aukera izango da eta hilaren 27an, *Los santos inocentes*. Emanaldiak, 19:00etan.

Antzerkia



OÑATI

> 'Txixarra eta inurria' antzezlanerako sarrerak salgai daude

Markeliñe taldeak zapatuan egingo duen *Txixarra eta inurria* umeendako antzezlanerako sarrerak salgai daude kultura etxean 3 eurotan. Emanaldia Santa Ana antzokian izango da, arratsaldeko bostetan.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Igarri da udaberrixa gurian dala

Igarten da udaberrixan sartuta gauzela. Baten batek esango dau giruan ez dala askorik igarten... eta arrazoirik ez xako falta! Baina, kalia igarri da udaberrixa. Hasi dia jaixak, kuadriletako agur afaixak eta bestelako ospakizunak.

Bergaran, esaterako, zapatuan 100 lagun elkartu zian Valladolideko mutil bati agur bazkaixa itteko. Ez dakit bazkaiitten nun emun otzain, baina, generua behintzat, majo erosi biharko ebein. Gero, arratsaldia animaitteko asmotan, **Oilagorra** taber-

"Oilagorra tabernan kontzertuak egon zian eta euskal kantuak jo ebein sorpresa moduan"

nan kontzertuak eskaini ebein. Euskal kantuak jo ebein sorpresa moduan; baina, Oi! musika be ez zan falta izan.

Oñatin AHT-aren aurka ko bazkai begetarianua in zan zapatuan **Gazte Asanblada** kuen antolatuta. **Acedo** ibili zan sukaldari lanetan eta, esan dozkuenez, oso arroz goxua gertatu eben. Kalia giro polita jarri ebein bazkai- ra fan zianek.

Kirol kontuetan, berriz, atzo gauza bitxixa ikusi neben Bergarako pilotalekuan. Hiru txinatarrek, partidu ostian, argazkixa etara gura izan ebein **Agirre** eta **Uribarren** irabazliekin. Soraluze enpresara etorritakuak omen zian. Ez dakit aspertu zian edo ez; baina, partidu luzia behintzat, izan zan.



1970ean jaiotakoek afaria egin zuten Bergaran. Geroz eta ohikoagoa da urte berean jaiotakoek, urtean behin bederen, anai arteko afariak egitea. Halaxe egin zuten zapatuan Bergaran, 1970ean jaiotakoek. Hain zuzen ere, Bergarako Bolu auzoko Azpeitxi jatetxera joan ziren ondo jan eta edatera. Argazkian ikus daitekeen bezala, 40 bat lagun elkartu ziren afarian.

Bertso afaria egin zuten Bergarako Gaztetxean egubakoitzean. Bertso afaria egin zuten Bergarako bertsolari eta bertsozaleek egubakoitzean Gaztetxean. Poto-Plost bertso eskolantolatu zuen afaria eta Hamaika Bertute ekimeneko ere hartu zuten parte. Hain zuzen ere, afariaren ostean Hamaika Bertuteko Andoni Otamendi eta Iñigo Eizagirre izan ziren bertsoak botatzen. 30 bat lagun elkartu ziren Gaztetxean eta gustura egon ziren afaritara joandakoak. Ziur koadernoan apuntatzeko moduko bertsoak bota zituztela bertan bildutakoek, bapo jan eta edan ondoren.



ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zator ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05 / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05. **Ofiati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65 **Arebaleta**: Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramaio**: Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22. **Egata**: Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98. **Antzuola**: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 100 euro. Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 90 euro. Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120 euro.** Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 110 euro. **Goienkaria: astero, 50.000 irakurle Gipuzkoan (CIES).**



zorion agurrak



ARETXABALETA
Julen Lanzos eta Nagore Biain
Julenek apirilaren 11n 3 urte eta Nagorek apirilaren 12an urtebete!
Zorionak bikote!! Patxo potolo bana.



ANGIOZAR
Martxel Arriaran Arana
Apirilaren 12an 3 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko partetik.



BERGARA
Beñat Landa Zubizarreta
Apirilaren 10ean, 11 urte. Patxo handi bat. Etxekoak eta Sara.



BERGARA
Antonio Aretxaga
Apirilaren 14an, 78 urte. Zorionak, bihotz bihotzez familiako partetik.



ARETXABALETA
Josune Blanco
Apirilaren 11n. Zorionak eta patxo handi bat etxeko guztien partetik, bereziki Unai lehengusuaren partetik.



BERGARA
Ane Garcia
Apirilaren 11n urtebete! Zorionak urte askotarako preioxa! Lehengusu Ander, izeba-osabak eta aitona-amonak.




ARRASATE
Markel Benito
Apirilaren 11n 7 urte! Ondo pasau zure urtebetetzeari, aitita-amamak, aita-amak eta osaba-izeben partetik!




ARAMAIO
Amair Arana
Apirilaren 12an, 4 urte. Zorionak Amair etxeko partetik, batez ere Uxueren partetik. Patxo handi bat eta ondo pasau!



OÑATI
Iban Perez
Apirilaren 13an. Kaixo osaba Piban, Zorionak! Ondo-ondo pasau eguna etxeko guztien partetik, bereziki Marion partetik!



OÑATI
Olatz Arkauz
Apirilaren 13an. Zorionak Destor!! Earki pasau zure urtebetetze eunian! Kuadrillakua partetik!



ARRASATE
Oier Armendia Zallo
Apirilaren 14an. Zorionak zure lehengo urtebetetzeari!!! Gorka, aitaxo, amatxo, amama eta etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Amets Ormaetxea
Apirilaren 14an 11 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko partez.



OÑATI
Alaitz Lazkanoiturburu Palacios
Apirilaren 14an 8 urte. Zorionak printzesa, famili guztien partez. Pilo bat maite zaitugu.



OÑATI
Anne Biain Navarro
Apirilaren 15ean 3 urte beteko ditu Annek. Zorionak eta laztan handi bat etxeko partetik.



ARRASATE
Ane, Alex, Nekane eta Nerea
Apirilaren 15ean 5 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi txikiko lagun partetik.



OÑATI
Itsaso Letamendi
Apirilaren 15ean. Zorionak Itsaso! 17 urte, primeran pasau zure urtebetetze egunian! Kuadrillakua partetik!



ESKORITATZA
Itziar Bengoa
Apirilaren 16an Zorionak potxola! Ondo pasau zure lenengo urtebetetze egune eta patxo handi handi bat.



OÑATI
Mireia Trabal
Apirilaren 17an. Zorionak ta patxo handi bat amatxo ta familiaren partez!



ARRASATE
Marikarmen Iraola Albisu
Apirilaren 18an. Zorionak amama! Milaka muxutxo Eritz, Jokin eta Ainhitzen partez!




ARETXABALETA
Kaiet Pando Egurza
Apirilaren 18an, urtebete. Zorionak eta patxo handi bat etxeko guztien eta bereziki anaia Markelen partetik.



ARRASATE
Josebe Aranburu Iraola
Apirilaren 18an Zorionak tia! Familia guztien partez, batez ere Eritz, Jokin eta Ainhitzen partez!!!



ARRASATE
Lide Azkarate
Apirilaren 18an, urte bi. Zorionak! Amatxo, aitaxo eta lehengusu Oihan.



OÑATI
Soraia Berjon
Apirilaren 19an. Zorionak sister! Egun ona pasau zure egunian. Muxuak etxekuen partez.



ARETXABALETA
Paule eta Elene Mendieta Gastañaga
Apirilaren 19an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat Irati, aitaxo, amatxo eta familia guztien partez.

jaiotakoak



Olatz Soria
Elorrio > 3,490 kilo. Apirilaren 10ean. Gurasoak: Esther (Elorrio) eta Aitor (Elorrio). Argazkian, Olatz, jaiotako berria, sehaskan.



Naia Ropero Galindo
Arrasate > Apirilaren 9an. Gurasoak: Monica (Arrasate) eta Javi (Arrasate). Argazkian, Naia, jaiotako berria, sehaskan lo.



Unai Gutierrez Garcia
Aretxabaleta > 3750 kilo. Apirilaren 10ean. Gurasoak: Marijose (Eskoriatza) eta Alex (Arrasate). Argazkian, Unai, sehaskan.



Mikel Iglesias Alvarez
Eskoriatza > 3.230 kilo. Apirilaren 10ean. Gurasoak: Susana (Madrid) eta Javier (Arrasate). Argazkian, Mikel, gurasoekin.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Eñaut Elorrieta > Ken 7 taldeko abeslaria

"Plazatan ikasi dut Ken 7rekin egiten dudana"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Eñaut Elorrieta Durangaldeko gazte askok ezagutzen dute irakasle izan dutelako. Baina, beste jende askok agertoki gainean ikusi du Ken 7 taldearekin. Fisika ikasketak egin zituen, baina musika oso txikitatik izan du oinarri.

Sarritan joaten zara Algortara? Oroitzapen asko dituzu?

Aspaldi ez naiz joan. Azkenean aldiz Portu Zaharrean ibili nintzen *poteatzen* eta oroitzapen ugari ekarri zizkidan. 4 eta 19 urte bitartean han bizi izan nintzen, eta oso urte bereziak izan ziren. Hala ere, astebururo Gernikara joaten ginen. Gernikarrendako algortarra nintzen eta algortarrendako gernikarra.

Faltan botatzen duzu erromerietako giroa, Lugarri eta Zabaleta Bandekin bizi zenuena?

Orain gustura nago daukadarekin, baina irakaspen oso ona izan zen: ekipoak muntatu eta desmuntatu, agertoki gainean eskarmentua hartu, ikusleekin harremana... Nik plazatan ikasi dut Ken 7rekin egiten duguna.

Musika sena familiatik dator-kizu...

Bai. Umetan amonarekin sukaldean abesten ibiltzen ginen. Etxean beti musika entzun dugu. Horrez gain, 10 bat urterekin lehenegusuekin Goiztiri taldea sortu genuen. Maketa grabatu genuen etxeko ganbaran eta etxekoendako kontzertuak egiten genituen.

Ez zara oso errebeldea izan. Irakaskuntzaren gaineko interesa ere gurasoengandik jaso zenuen...

TEST-A

Herria: Gernika. **Adina:** 32 urte. **Ikasketak:** Fisika, Ingeniaritza Elektronikoa eta gitarra klasikoa. **Zaletasunak:** Musika, mendira joatea, bertsolaritza... **Zer amets bete duzu?** Asko. Bat askotan amesten nuena, agertoki gainean aritzea. **Bidaia bat?** 20 urterekin Mexikora bakarrik jo nuen, eta asko markatu ninduen. Baita Kubara egin nuena. **Zer musika talde entzuten zabilta egunotan?** Gaur autoan Leonard Cohen jarri dut.

(Barre), Ez dakit. Amak baietz dio. Gurasoak ikastolako irakasleak dira, eta euskara eta balore asko transmititu dizkirate. Nik musika baliatu dut oihukatze-ko, espresatzeko eta gure tamainan mundua aldatzen saiatzeko.

Fisika ikasteko motibatuta zeunden?

Bai. Fisika edo ostalaritza ikasteko zalantza egon nintzen. Sukaldean ibiltzea oso gustuko dut, asko erlaxatzen nau-eta. Fisika ere oso gustuko dut, baina ikasketak bukatzean curriculumak ikastoletara bakarrik bidali nuen. Gurago dut jendearekin harremanetan lan egitea.

AEBetatik pilak kargatuta itzuli zarete?

Bai. Oso aberasgarria izan da, sentsazio pila bat bizi izan ditugu. Konturatu gara mundua handia dela eta hemen egiten duguna ez dela onena eta bakarra; baina, aldi berean, hemen egiten diren gauzek kanpokoek duten adina kalitate dutela, ez gutxiago. Bestalde, maite dut bidaiatzea, zalantza barik.



ZALETASUNAK Musika, bertsolaritza eta kirola egitea gustoko ditu.

ELKAR

ai, ene!



Jateko modu garbia

Mahai-zapia edota mahaia bera gutxiago zikintzerik ba al da? Hemen goian ikusten duzuen asmakizunarekin, jaterakoan goilarea platerean edota ontzian izateko aukera dago. Ezin esan garbia eta praktikoa ez denik behintzat.

<http://www.boingboing.net>

biharamuna

Oier Bolibar

Gizatasuna lanean

Zorionez, eta aspaldiko partez, Jose Mari Larrañagaren artikulua irakurtzeko aukera izan dut. Ezaguna da bere idatziek *T.U. Lankide*-ri ematen dioten sakontasun eta gogo-eta puntua, eta ez da gutxiagorako izan hila-bete honetan argitaratu den alean. Guztiok hitz egin dugu ale honetako gai nagusiaz, non *Humanity at work* edo *Gizatasuna lanean* leloa izan den titular nagusia. Azalean gelditu gara lelo horri bere horretan slogana bailitzan erreparatu badiogu, ezen haratago doa Jose Marik dioena. Haratago, eredu kooperatibistaren sinpletasunaz eta konplexutasunaz hitz egiten




baitigu, azpi esanahirik gabe, hitzez-hitz eta esaldiz-esaldi *Gizatasuna lanean* leloaren oinarritzko eta jatorritzko baloreak ohikoa duen eran azalduz eta aletuz.

Bere baimenarekin, berak erabilitako adibide arrunt bera nahi nuke hartu asko laburtuz, non Einsteinek esana aintzat hartuz, gehiegizko analisiak, gure prozesu mental eta emozionalak era berdintsuan izozten omen ditu. Antolakuntzak, intuizioarekiko, emozioarekiko eta imaginazioarekiko sentibera izan behar du.

Hala bedi. Eskerririk asko Jose Mari.

eguraldia



MAXIMOA

+14

MINIMOA

+06

Goizean zaparradak botako ditu, arratsaldean hodeiak eta ostar-teak tartekatuko dira eta ez du apenas euririk egingo.

www.euskalment.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea

KODEA
KODEA
KODEA
KODEA

5767 zembakira
SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

Himnoak
Eibar | **EIBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Real | **REAL**
Real Union | **UNION**

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantxo) | **BAI**
Bakeak (Anje Duhalde) | **BAKE**
Bakaria Maite (Benito Lerbund) | **BIZKAIA**
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herrian Euskaraz (Oskor) | **EUSKAL**
Euskaldun berraren balada (Oskor) | **EUSKALDUN**
Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**
Furra Furra (Oskor) | **FURRA**
Galziara noa (Oskor) | **GALZIARA**
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | **GERNIKA1**
Haika Muti (Mikel Laboa) | **HAIKA**

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | **KODEA**

Izarren hautsa (Xabier Lete) | **IZARREN**
Lepoa hartu ta (Pantxo/Peio) | **LEPOAN**
Marinelaren zai (Sorotan Bele) | **MARINE**
Nere herriko neska maite (B.Lerbund) | **NERE**
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | **NON**
O! Ama Euskal Herria (B.Lerbund) | **OIAMA**
Tiraki (Oskor) | **TIRA**
Txabamabababu (Mikel Urdangarin) | **TXATXA**
Txoria bori (Mikel Laboa) | **TXORIA**
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordonika) | **ZAINDU**

Herrikoia
Bagare | **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**
Ikusi Mendizaleak | **MENDI**
Pintxo-pintxo | **PINTXO**
San Simon eta San Judas | **SAN**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

LAUI **MUSKARIA** **AIZKORAK**

NUKLEAR **KALABERA1** **EGUZKILORE3**

SORGIN **POPATK** **KAPUTX**

OHARRAK
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuko, jar zaituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alia ematea doan da eta Ki jaitziera bakarrik ordaindu behar duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123-ra. / * Movistar: deitu 609-ra.
3. **ZALANTZAK:** Ezbeirien zailantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure naurira egin ditzaiegun abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN www.smsoinu.com